

ITZALDIAK

LAUGAREN SAIA

Antxiñako Olinpiar jolasak. Anabitarte'tar Augustin'en itzaldia.

Arate. Lañañaga'tar Polikarpo'ren lendabiziko itzaldia

Arate. Lañañaga'tar Polikarpo'ren bigarren itzaldia.

Emakumien etorkizuna. Julia Fernandez Zabaleta'ren itzaldia.

DONOSTIA'N

MARTIN ETA MENA'REN ETXEAN

1926

ITZALDIAK

1'go saia

- 1: Ufeta'taf Mikel: *Edesti-aur̄ea. Leixezuloak.*
- 2: Rafael Larunbe: *Euskaleriarentzat iru kalte.*
- 3: B. Etxegarai: *Euskaldunak, euskerax.*
- 4: Garitaonandia'taf B: *Usandixaga. Bere bixitza ta eres-egikuntxa.*
- 5: Zinkunegi'taf J.: *Eusko-abenda. Bere sendotasuna len, orain eta gero.*

2'g. saia

- 1: Donostiaf J. A.: *Euskalduna, abeslari.*
- 2: Aftetxe'taf I.: *Gure gaitxak.*
- 3: R. M. Azkue: *Domingo Agiŕe, bere-tergoan.*
- 4: K. Etxegarai: *Domingo Agiŕe oleŕkari*
- 5: P. Lhande S. J.: *Agiŕe irakuŕgaikiña.*
- 6: A. Pagoaga: *Ipaŕagiŕe; bere bixitxa.*
- 7: K. Etxegarai: *Euskaleriako itsas-gizonak.*

Aŕgiak, eŕezak eta noŕnaik irakuŕtzeko aukerazkoak dira itzaldi oek. Gañera befiz, txukun, apain eta aŕduraz aŕgitaratuak daude.

Sail bakoitza: 2 P E S E T A

Itzaldi oek salgai dauzkaten etxeak: Imprenta de Martiŕn y Mena (San Marcial, 25).
—Libreria de Leizaola (Garibai, 28), biak Donostia'n. Eta Bilbo'n befiz: Emeterio Verdes (Correo, 9).

M. 64858
F. 65662

ATV
27848

ITZALDIAK

LAUGAREN SAĪA

Itzaldi oek, EUSKAL-ESNALEA'k
eratu zituan eta EUSKAL-ESNA-
- - - LEA'k argitaratu ditu - - -



DONOSTIA'N

MARTIN ETA MENA'REN ETXEAN

~
1926



ARKIBIDEA

Orialdea.

<i>Antziñako Olinpiar jolasak. Anabitañte'</i> tañ Augustin'en itzaldia	1
<i>Añate. Lañañaga'tañ Polikaño'ren lenda-</i> biziko itzaldia	51
<i>Añate. Lañañaga'tañ Polikaño'ren bigañen</i> itzaldia.	94
<i>Emakumien etorkizuna. Julia Fernandez</i> Zabaleta'ren itzaldia	143



ITZALDIAK



ANABITARTE'TAR A.

ANTZIÑAKO OLINPIAR JOLASAK

1923'G. URTEKO AZAROA'REN

18'AN IRAKURITAKO ITZALDIA







ANTZIÑAKO OLINPIAĀ

JOLASAK

Itzaurea

Munduan diran eĀi guztiek noizbait izen eta omen aundia izan dutela esan diteke. Ta orain OlinpiaĀ Jolasetaz jaĀdun beaĀ dugularik Grezi eĀiaz zeĀbait esatera beaĀtuta gaude, bada, entzute aundiko Jolas aiek Grezia goreneko maĀlara igo zaneke sasoiekoak dira.

Grezi-eĀia igo zan maĀlara gutxi ala iĀoĀ goratu dirala esan genezake. Grezi'ko antziĀa-

tasuna guztiz argitsua da, guztiz jakituna; baldin egiazko erlijioa orduantxe ezagutua ta ziñestua izan bazan, gogoa asebeteko antziñatasuna izan zala esango genuke. Gizairudi-erriak eta jakintzak, batez ere, asko ta asko auferatu zuten. Orduko Tukidides, Aristofanes, Aristoteles, Herodoto, Platon, Demostenes, Sokrates ta beste askoen jakintza gauñ jaio izan baziran bezin beñia da orain ere. Gauñtandik atzerako bi mila urteko gizairudi-lanak, gauñ ere eredutzat artu genitzake. Norbaitek ala dio: «Nonnaitarak gerala, gure artean dagoan erdia grezitarra da».

Grezi zarañaren egimenik aundiena Olinpiar Jolasetazko sasoiekoa da. Amabi eun-urtean Jolas aiek ospatsuenetako gizonen biltokia izan ziran. Platon zelaian agertzen zanean erriak ez zituan itzultzen begiak beragandik une batean, ta bera aurean izatetik nolako poza soñtzen zitzaien erakusteara guztiz itz ez titsuak esaten zizkioten. Herodoto'k antxen irakuñi zituan bere edesti nagusiko lenengo atalak. Lege egokiak edo garaipenak

loitzen zituzteneri Jolastokian bertan txalo beroak jotzen zizkieten. Salamina'ko guda-aldia bozokatu berian Temistokles Jolastokian agertu zanean, jolasak ikusteari utzi ta egun guztian berari begira egon zitzaioten atzeritañeri afitutako itxuran erakusten zutela. Ta Temistokles berak, zoriona gañezka zeriola, «oña, esan zuan, Grezia'ren aldez jasan ditudan nekeen sari-oñdaña».

Homero'k zearo edestu dituan jolasak eta bozokak aspaldi-aspaldikoak dira; jolas oiek, batez ere, mutilak eta gazteak sendotu ta gudarako gaitutzeko jañi omen zituzten. Olinpiañ Jolasek grezitañ añaza edo abendari sendotasun aundia eman zioten. Igi-sendoketa edo jinasia gaztetasunari beañekoa zaiola-ta, Grezi'n izugañizko bolara luzea ñraun zuan. Eñi bakoitzak bere jinasi-tokia bazeukan, goñputzak bizkoñtu ezik gudari edo soldaru bulañtsuak zegizkiten. Aristoteles'ek auxe zion: «goñputz-indañketak osasuna ta edeñtasuna irixteko begizkite, gero osun-edeñtasun oiek Eñiko agintarieri eskeñi».

Sasoi añtan izan ziran ññoiz ikusiko ez

diran bezelako giza-gorputzik ederenak. Gureganaño iritxi diran gizairudi oiek oso edeñak dira; idazle baten ustez ereduaren irudi berberak ez omen dira; alegia, eñtilariek beren yayotasunaz izan baño edeñagoak atera zituztela. Gu, ordea, ez gera uste onetakoak, ainbeste eun-da-eunurtean igi-sendoketan arituak zirala-ta oñen emakume ta gizon bikañak izango ziran, emakumeak ere itsendoketan aritzen bai-ziran. Gorputza landutzen gu aiek baño askoz jakin gutxiagoak gaude. ¡Ai, guk oñetan aiek aña bageneki!

I

Olinpiar' Jolasak

Antziñako Olinpiar' Jolasak Grezi'ko Olinpia izeneko eñi deun edo santuan jokatzen ziran; jolas oieri orengatik datoñkie olinpiar' izena.

Grezia'n lau jolas mota izaten ziran: olinpiar'ak, ismitar'ak (Korinto'ko «istmo»-an jokatzen ziranak), pitotar'ak (Pito eñian), ta nemeatar'ak (Nemea eñian). Oiek, batez ere, Grezi'ko jai nagusiak ziran.

Guztien artean izen, ospe ta entzute aundiena, olinpiar' jolasak. Auetzaz jañdunda besteaz itzegiteari utzi genezaioke, alako jakingafi ta politak dira.

Olinpiar' Jolasak ikaragarizko jendearen emanak izaten ziran. Grezia'n ziran indar'dun gazte bikañenak eta eñi geienak Olinpia'ko Jolastokian biltzen ziran.

Jolastokiko gorputz-indarketak ez dakigu bata bestearen aurretik ala atzetik nola jokatzen ziran. Auxe da dakiguna: indarketak bi eratakoak izaten zirala: ariñak batzuek, aztunak besteak. Ariñak goizean egiten ziran; aztunak, aratsaldean.

Lenengo eguna neska-mutilentzat egokitzen zan; neska-mutilen jolas auek benetako gogoz artzen ziran.

Gizonezko indarketa ariñak korikaldiekin asten ziran. Auřena, abiadurazko laxteřketa; uřen, iraupenekoa; gero, bien arřeko laxteřka, ta, azkenez, izkiluzko korikaldia. Au burukoa, eskudoa ta belaunekoekin koritzen zan; geroxeago eskudo bakařarekin.

Bestelako indarketa-ariñak: saltoa, kuřpila-botatzea ta makila-botatzea.

Indarketa-aztunak, beřiz, bořoka ta ukabilka, «pankrazio» (lengo bien arřekoa) ta «pentatlo» zeritzana. Azkeneko onek bost jolas arapatzen zituan: laxteřketa, bořoka, ikotika, kuřpila ta makila. Jolas auen guztien beři, zearo esanda, geroxeago emango dugu.

Jolastokiaz gañera Zaltokia (zaldi-tokia)

ere ba-zan, ta beritan zaldi-laxteketak beñiz, bai zaldigizon utsez ta bai guñdiz. Auen ezagutza ere gero demakegu.

Olinpiañ Jolasak noiz soñtu ziran iñoñk ez daki; jolas oien soñkuna antziñatasunean galdu egiten da. Jolas oieri noizbaiteko asiera ematen grezitañek beren jainkoizunen ipuiak makiñabat asmatu zituzten. Askotan kendu ta, osterá, jañi zituzten; baño Josukisto auñetiko 776'g. urteaz geroztik, batez ere, tajuz egiten ziran; olinpiañ-sasoia orduztik datoñela esan diteke. Ta Josukisto geroztiko 394'g. urteraño, Teodosio enperadore zala, jolas oiek bukatu ez.

Beraz, 1200 urtean, alde-alde, iraun zuten Olinpiañ Jolasek. Gerñtaera bat zein sasoietan izan zan adierazteko onenbestegañen Olinpiañ Jolasean gerñtatu zala esan oi zan, ta sasoiak neuñtzeko era orñekin egutegi edo kalendayoa bazteñtu zuten. Guzitara 293 jolasketa jokatu ziran Olinpia'n.

Jolasak lau urñtetik lau urñtera izaten ziran. Jai oiek egiteko garaia Garagañilean, urñte guztiaren egun luzeenetan.

Jolasaldi guztiak egun batean ezin zitezkeala-ta, azkenean bost egun zirauten. Indarketak gauerdian buka ta ostera egunak zabaltzean asi; jaietako edertasuna gaueko ilargiak ikusgarriagoa egiten zuan; grezitarak gauzari aldeñdi edera bilatzen yayoak ziran.

Sariak irabazteko asmoarekin ez zitekean noñnai jolas oietan aritu; an aritzeko grezitar odol utsduna bear zan izatea, ta Grezia'ren aurkako kalterik txikiena egiña ez izatea. Lege oreri iges egiterik ez zegoan; bai eregeak, bai noñnai oretara beartzen zituzten. Syrakussa'ko Hieron'ek ez zuan grezitarekin batean perstitaren aurka bořokatu nai izan; ala ere sari baten ondoren leian aritzeko ustearekin zaldia bidali zituan Olinpia'ra, ta guztiz ondo apaindutako txabola bat eraiki. Orduan Temistokles'ek, grezitaran batzaran, Hieron'en txabola apurtu egin bear zala ta bere zaldieri zaldijokoetan ez utzi.

Jaietara ez zitekean mundu guztia joan. Atzetitarak ikustea eskukoa zuten, baño ez jolasetan aritzea. Emakumeak zaldi-laxtef-

ketan aritu zitezkean, baño gizonen indar-jolasetara joatea galazia zeukaten, senarak edo semeek aietan aritu bear bazuten ere. Jolastokian ageitzera ausartuko zan emakumeak zigoñik gogoñena artuko zuan, il egingo zuten, aldameneko arkaitz baten goitik bota egingo zuten.

Bein Kalipatira izeneko andre batek lege ori autsi zuan. Kalipatira saritutako jolaslari-rien alaba ta areba zala, bere seme Pisidoro berberak eraman nai izan zuan. Gizonezko jantzian sartuta bere semeak «pankrazio» jolasean izugarizko garaipena irabazi zuala ikusi zuanean, ama zala erakustearfen gizonnezko jantzia bota ta bere semearengana koñika joan zan. Beste batzuek diote semea-ri laztantzera joan zitzaionean azpiko jantzia ikusi ta emakumea zala onetan ezagutu zutela. Dana-dala, epaikariengana eramanda ain jolaslari ospetsu askoen aidea zalako, eriotzatik barkatu zioten.

II

Olinpia

Afkadi mendietako Kronos izeneko muñoaren oñean, Olinpia'ko toki berdiña edatzen zan. Zelai zabal artan zeuden etxeek ez zuten, ondo esatera, eñi bat osatzen; ango tokiari ez zegokion eñi izenik, naiz etxeak izan bizitegiak ez ziralako, etxe-deun edo tenploak baizik; ala ere, eñi deun edo santua deituko diogu.

Aspaldiko Olinpia'ri ikuste bat egiten badiogu, auñen-auñenetik auxe oartuko dugu: Olinpia eñi deunaren eñdian aresiaz itxitako baso-deuna (ala deitzen zioten); oleñkariak beren oleñkietan Altis izendatzen zuten baso deun ori.

Sarkaldetik asita Olinpia'ren beñi demadan, bai Altis-ateko etxeaz, ta bai Altis berberaren etxe ta edeñgaluaz; auxen zan, bada, olinpiañ jolasak egiteko greñitaneñ aukeratu zuten zoragañizko tokia.

Lenengoz ikusten diranak, auetxek dira: Jinasi-toki aundia, Jinasi-toki txikia ta Palestra deitzen zana. Jinasi-toki edo Itsendoki aundia, beste aldean zegoen Jolastokiaren neurri berberekoa zan. Jolaslariak emen saiatzen ziran Jolasketa batetik besterañoko lau urteko epean, euria ariko zuanerako estalitako tokia zan ura. Ta Jolasketa-auretik azkeneko saiaketa egitera jolaslariak Palestra zeritzan tokira joaten ziran. Jinasi-toki (Itsendoki) txikian bestelako jinasi-indañketak egiten ziran. Atze-aldean Antzoki edo teatroa zegoen.

Orain Altis'eko barunbean sar gaitezen bertan zegoen ate artatik. Eskubi-aldera lenengoz ikusten duguna Filipeion izeneko etxe-deuna. Aurre-aurrean Heraclion beste etxe-deuna dakusgu, ta ezker-aldera, munoaren kontra, jaiak bitartean guztien aurrean oturuntzak (banketeak) egiten ziraneko tokia, Printaneion zeritzana; oturuntzak kanpotaren ta txapeldunen omenaz egiten ziran.

Heraclion'ean Hermes'en Praxiteles gizairudia ikusten zan, ta emendik zuzenean

Juno'ren etxe-deunara joan zitekean: Juno grezita'ren jainkoen ama zan. Etxe-santu oneri Metroon deitzen zioten ta baruan guztiz edergalu arigariak zeuden.

Baño begiz jotzen zuan egintzarik aundiena erdi-aldean zegoan Jupiter Olinpiararen etxe-santua zan. Auxe zan grezita'ren goreneko jainkoa, ango nagusia ta Jolasketaen Zaitzaria. Baruan Fidias'ek egindako Jupiter'en irudi ospetsua zegoen, marfilez, urez ta ari-pitxiaz egindakoa. Gizairudi onek zoragarria izan bear zuan grezita'rentzat; alako jainko-itxura aundia emateko, ea—galdetzen zioten Fidias'eri olekariak—ea Jupiter bera ikustera Olinpoa'ra joan ote zan.

Etxe-deun onen atzean oliu (olio-ur, azeituna) arbola bat azitzen zan. Garaipen-adaña arbol onetatik moztutzen zuan aututako aur batek.

Altis'eko barunbea zinez edergaluz josia zegoen. Gizairudiz eri bat osatu zitekean; bein, txapeldunen irudiek bazta guztiak betetzen zituztela, buruak bakarrik ja'tzea erabaki zuten, bestela naiko tokia izango ez

zalakoan. Non-nai marġo politazko ta usai gozodun arbolatxo ugariak eta loretegi apañak; ziñez, jainko bat guřtzeko ustean, uraxe baño toki egokiagorik aukeratu ezin zezatekean. Jolasketaen txapeldun zenbaitzuk antxen zeuzkaten beren ilobiak. Atzeritañak guztiz zoratuta arkitzen ziran ango edertasun ta aunditasunaz.

Olinpia'n aberaski ugariak zeuden. Jolasketa-egunetan ezik ura utsik egoten zan; ara ez ziran apaizak eta bidezkarriak (peregrinoak) baizik joaten, ta orrelako jai aundietan Olinpia'ko etxe-deuna eskubetezko uretaz aberastutzen zan.

Altis-ateko ipañ-aldean Dirutegia'ren amairu etxetxoak oartu zitezkean, batzuek oso aberatsak; etxe aietara Grezi'ko eri askotatik aberaski ugariak ekařtzen zituzten, Grezia'ren batasuna erakutsirik.

Altis-eneko eskubi-aldean Jolastokia ta Zaltokia zeuden. Altis'etik Jolastokira joateko ate berezi bat zegoen, baño andik agintariak eta jolaslariak bakañik igaro zitezkean, eria mendi-ondoko bideetatik sarřtzen zan.

Jolastokia dakusgun. Jolastokiak laukoitz tankera zeukan, luzeran 212 metrokoa zanta zabaleran 30'ekoa. Lau-aldeetako ikus-tokia maldatsua, belarrez apaindua; ipar-aldean mendiaren kontra zegoela-ta, mendiaren malda berbera onartu zuten, gañerakoan malda berarizkoa zan. Ikusleen eta jolaslarien tokien artetik orma bat eraiki zuten, andik igarotzea galazia zegoela; ormaren ondotik, beriz, jolaslariak bearko zutenerako ur txirista bat zihoan.

Jolastokiaren mutur batean zut-ariz, gizairudiz, aldarez ta era askotako eder galuz apaindutako baruti bat zegoen. Jolasketa artetik jolaslariak ementxen kentzen zituzten beren soñekoak, olio z igoitzi ta oñetakoak jantzi, edo-ta, jolasetara dei-egingo zietenako ementxen gertutzen ziran jolaslariak.

Zelaiaren bi muturretan, erdi-aldean, zut-ari bana zegoen, auek noiz bira eman eta, batez ere, korika non bukatzen zaneko tokia adierazten zuten, ogei korikalari batean lebilzkeala. Zelaia mutur batetik bestera 185 metro zan.

Jolastokiaren ondoan Zaltokia. Zaltokia kilometro t'erdi luze izango zan, bira egiteko mutura biribila zan; ta beste muturean, Jolastokiaren antzera, baruti bat zegoen, ukuluak, zaldiak eta zaldigizonak antxen gertu zitezzen.

III


Jolasketa aúretik

Grézi'ko éri bakoitzeko indańkariak, jaiak asi bańo askoz lenago, urduriki saiatzen ziran Olinpia'ra joateko; ta Olinpia'n, beriz, jolasketa-eguna bańo ilabete zenbaitzuk auferago asten ziran gauzak gertutzen. Éri bakoitzak nai ańa indańkari ta zaldi bidaltzen zituan, ordezkariak lagun zituztela. Bai indańkariak—gizonak eta mutilak—, bai zaldiak, Olinpia'ra iritxi orduko, epaikariek ikustatzen zituzten.

Epaikari oiek, amań ilabetez aúretik, beren eginbeańa beteaz, indańkariak ańtu edo bazteńtu egiten zituzten, zein maletarako izango ziran berezi, jolasetako xeetasunak azteńtu ta zelaia aukeran jańi. Itsendoki aundian lau bańuti zeuden: indańkari zańentzat, berientzat, gazteentzat eta laugańena eńtilari edo ańtistaentzat.

Jolasak asi baño lenagotsu iru aitzindari zaldizka ta tutuaz Olinpia'tik irten ta eriz-eri jolasetako eguna adierazten zuten. Oien atzetik Grezi'ko gain-gañeko notiñak, jori ta disdiratsu, guztiz aberaski ikusgañekin. Jolasak zein eratarra jokatuko ziran oju egiten zuten ta «txolañte santua» onela ospatzen zuten. Txolañte santua zirauen bitañtean ezin iñongo eridiekin gudarik izan; jai oietan eri osoak adizkidetu ta alkañtu egiten ziran. Grezi'ko luñ guztiak pake santuan bizi beañ ta sañtuko litzakean edozein aldeetako gudariari isun edo multa emango lioteke. Etsairik amonatuena adizkidetasun maitetsuenean bizi; iñongo gaitz eta ariskoek ezin jostak eragotzi; oitzen zan nagusitasuna ta tajua aritzekoak izaki.

Aitzindarien deiari Grezi'ko eriak erantzuten zion itxura guztizko gizatalde aundia bidaliaz: bai erege-koxkoñak, jauntxoak eta eri-ordezkarriak iñon diran zalguñdi



Iru aitzindariak efiz-efi.

aberats eta aroxkoenakin, bai asko moduzko ibiltari txiroak.

Ilabete batez lenago, Elida'tik Olinpia'ra, buruzagien ta indarkarien aldatze ospetsua izaten zan. Irureun metzoko bide oretan buruzagiaz gañera orduko polizia-burua ta bere pekoak joaten ziran. Jaraigo luze aren atzetik indarkari-oztea, indarkarien aide ta adizkideekin ta baita zaldi-laxteketan aritu bear zuten zaldi apañak zaldigizonak eta guzti. Jaraigoaren ingurutik izugarizko jendea biltzen zan ta era guztietako iritzi ta aztiguak azaltzen zituzten.

Jaiak lau urtetik lau urtera izaten ziran ta Jupiter'en omenaz egindako opa ugariekin asi. Aldundi edo Diputazio osoak ikusten ziran beren erien izenean Jupiter agurtzera. Grezi'ko eri guztietatik auzkariak zetoikioten Jupiter'i aldareetan opariak egitearen. Eregetxoak eta jauntxoak leian ibiltzen ziran nork nor baño opari ederaoak ekañi ta opari oiek baruti santua betetzen zuten.

Olinpia'n etxe santuak bakañik zeudela ta

inguruan bizitza kaxkañ batzuk baizik, jenderik geiena Elida eñira joaten zan, ta ilabete batez lenago alako jende aundiaren emana zala-ta eñiko ingurua txabol apañez betetzen zan ango ikustea zearo aldatzen zalarik. Gauñ aspaldiko Elida-eñia basamoñtua baizik ez da.

Ez indañkariak bakañik—eñtilariak ere— Zilena kaietik itxasoz etoñiak baziran, baita Megalopoli'ko bidezabalatik, Gñezi'ko bazteñ guztietatik etoñitako ozte ikaragañia ikusten zan: Milesi'tañ bikaña, Españta'ñ indañtsua, Parnon'eko añtzaia, Atenas'ko jakintzaria, Dodonako'ko apaiza, Trízi'ko añotza ta Ejito'tañaren irudi berezia.

Bidezkaria Olinpia'ra irixten zanean lenengo egitekoa Jupiter'i eskeñak ematea zan, itxasoko edo legoñeko gaitz guztietatik beren Jainkoak begiratzen bai-zituan etxea utzi oñduko. ¡Zoritxañekoa, zerizkio-ten, Olinpia'n bere bizian izan ez dana!

Il onetan saiaketa auñenak zegizkiten, jolas-epaikarien auñean, gero auek ezaguera obearekin beren erabakiak añ zitzaten. Bat-

zuetan erabakiak zuzen artu ez zituztela-
koan Senado'ra jo zuten ta andik Delfos'eko
Orakulo'arengana. Bein baño geiagotan ma-



Koblakaria

txinadak soñtu izan ziran jolas-epaikarien
erabakiak oztearen gogokoak edo uste-one-
koak izan ez ziralako.

Ilabete ori bitartean sendotu-bidez gazta eginberia besterik ez zuten jaten indarkariek lenengo sasoietan; geroxeago aragia jan aizaten zuten.

Jolas-eguna bertago ta jendea efuz biltzen zan. Lañean abereak ugari ikusten ziran, gero, ildakoan, opalduak izan zitezzen. Alfeo ibaiaren bi ertzeen ingurua margo askotako dendaz jositako toki alaia zan ura. Batetik, txabola aiek guziak peri egun ospatuenetakoak ziran; bestetik, ertilariak, musikariak, komedianteak eta bertsolariak arnen gisa denden artetik zebiltzan bazta guztiak betetzen. Ango otsa ta ibiltzea, oarñariak. Sale-rosleek salgai ederenak egun aietarako ostentzen zituzten.

IV

Jolas-Egunak

Bideko nekeak bidezkarria aunatuta baldin bazeukan ere, onek gau ardan ezin zezakean lo aundirik egin. Gau-erdian jendea lañi asko jaikitzen zan Jolastokiko maña egokienak berealakoan arapatzeko. Ikusleak, alkarñen gainka, gerota ugaritzen zijoazen ta eguzkia irtenorduko jende pilo aundia bilduta zegoen.

Eguzkiaren irteera betiko gauz ikusgarria izaten zan. Mendien atzetik goraka zijoan eguzki itxutuak pixkanaka-pixkanaka gorago zabaltzen zituan argi-izpiak. Izpi oiek argiagoak eta eguzkia bertago zegoalaren ezaugarria. Unetik-unera argia biziagoa ta jendea ipurtaulkitik aidean urduriki zai zegoen. Bat-batean beren-aldiko txalo berroekin aguftzen zuten eguzki musuaren azaltzea. ¡Udara egun ura bai kixkalgarria izango zala!

Ořduztik edeřki igaři zitekean jaiaren aunditasuna. Pausanias'ek dionez larogei mila ikuslek lasaiki ařtu zezateken exeri-tokia, ta jendearen emana ain aundia ta alkařekin estututa bein bařno geiagotan ilak izan zirala gogoratzen bagera, nolako samalda biltzen zan antz emango diogu.

Erege, aldun ta eři-legegizonen auřeko jařlekuak gořiz ta uřez ezin politagoak ikusten ziran. Badatoz Altis'etik azkeneko gain-gaņeko notiņak arinka, ta guztia pil-pil dagoela tutu baten otsa entzuten da.

Ořdurako indařkariak Jupiter'en irudiaren auřean gřezitař odol gařbidunak dirala zingegin dute, amař ilabetean saiatu dirala itza eman dute ta baita bidez jokatuko dutela. Aideak eta saiaketa-maixuek ziņa berbera dagite. Maula edo bidegabekeririk egingo lukeanari isun edo multa aundia emango lioteke ta baita zigořkarien zigořa ařtu. Amař ilabeteko saiaketa ařtara beařtuta zeuden Sadas izeneko espařtařa elburura irixtean nekeaz ilda erori zanez geroztik.

Indařkari gaztea osasuna zeriola Jolasto-

kian agertzen zanean, biotzikara sórtzen zan lekune ar̄tan. Saiaketa-maixuak lagun egiten zion azkeneko uneraño ta bere egin-beara itzez zearo erakutsi. Olio deunaz igor̄tzita geftutzen ziran indar̄kariak.

Ziñak eta miñak aitu dira. Guztia geftu dago, oliur̄ adara moztu du guraso bizidun aur̄ batek. (Adar̄ au Jupiter' en etxe-deunatik ekar̄tzen zan ta lur̄-gañean gogo-izango zuten saririk onena uraxe zuten).

Epaikariak, indar̄kariak atzetik jar̄aitzen dietela, nagusiro dijoaz, ta értze batean ar̄izko ikustaulki batzuetan exeri dira, inguruan apaizak, zuzenburuak eta Gr̄ezibañenean er̄iz-er̄i ibili diran aitzindariak dauzkatela.

Laxteřkak.—Olinpiar̄ Jolasak oñezko laxtar̄karekin asten ziran; auxe zuten aspal-diko ekiñaldi zaarena. Ta laxteřka guztien ar̄tean Jolastokia mutur̄ batetik bestera bein kor̄itzen zana ospetsuena.

Epaikari-buruaren dei batez tutua jotzen zuten ta aitzindari batek «aur̄era mutilak»

oju egiten zuan. Laxteřkariak launaka kofı beař zuten, auřena nor zein tokian jaři txotxalamotx eginda.

Uřena lengo aitzindariak guztien auřean, ea indařkarien bat bizikera txara edo laidoa berekin izan bazuan norbaitek ote zekian galdetzen zuan.

Iñork erantzuten ez bazuan ostera tutua jo ta tximistaka iftetzen ziran laxteřkariak. Auen gaitasuna oztearen deadařaren akulua- rekin, alkařen leian ia ikusten ez zirala iga- rotzen ziran. Laxteřkaldi bakoitzean izu- gařizko txaloak jotzen zizkioten garaileari, azkenekoan batez ere.

Jolastokia 192 metro luze zan, ta batetik bestera amalau ta ogei segundo bitařtean egiten zuten, uste danez; beraz, ekiñaldi edeřa. Gauř munduko onenak ogei segun- doan agian ez luke egingo, ori mundu osoak askoz indařkari geiago ařapatzen ditualarik Gřezia bakařean izan zitezkean baño. Pad- dock, munduko txapeldunak, 200 metroak 21 segundo ta bi bostenean egiñak ditu. ¿Nolako abiaduran joango ziran laxteřkari ospetsu

aiek? Indańketako gogoa ain bolara luzean iraun zuala-ta, semeeri aitengandik jakitea ezik al izana etońiko zitzaien.

Laxteńkarien garaipena epaikariek ontzat emanda betiko aitzindariak beraren izena, bere aitarena ta bere eńiarena oju egiten zuan. Ta oliuń adańa irabazteko ainbeste neke jasan zituan gazteari sari bera ematen ziotenean beńeraginda txaloak eta ifintziak luzero zirauten. Burestuna edo koroia ez zioten ematen beinean bakańik irabazten zuanari, askotan beretu zuanari baizik.

Txapeldunaren izena ainbeste-gańengo Jolasketak berarekin zeraman ta onela bada-kigu laxteńka onetan lenengo aldiz irabazi zuanak Korebus izena zuala. Batzuek bi ta iru Jolasketan garaitu zuten. Eńodas'tań Leonidas'ek, berak bakańak, lau aldiz irabazi zuan; laxteńkak ez zion ba amasei urte oietan kalte aundirik egin.

Udara-eguna zan ba, ta, onuzkero, beroa sendo ari duela, Jolastokia labea biuńturik dago. Agian ikusleak beren loturak azkatzen asi dira bazkaltzeko. Izańdia patsetan dario-

te; estaña zerekin busti ere izango dute. Baño ez dira deus aspeítzen. Laxteíkariak badabiltz zelaian. Eguzkiak ez die batere kalterik egiten gauí-eguneko jolaslarieri bezela, bete-beteko eguzkizaleak bai-ziran. Alkaíri begiratuta lotsatu egiten ziran laíru zuria izateaz oíduko gazteak.

Uíren Jolastokia bi aldiz, amabi aldiz ta ogeitalau aldiz igarotzeko laxteíkak izaten ziran. Garailariaren izena aitzindariak adierazten zuan ta ondoren ozteak zutik jaíta txalo-zalapaíta aundia atera.

Gero gizon izkiludunen (armadunen) laxteíkak.

Laxteíkariak gora ta bera aratsalde guztia zijoakien ta ilunabaíean, lenengo eguneko jolasak amaituta, Altis'eko toki zoragaíri arítan jendea biltzen zan. Antxen zebiltzan beítsolariak gauean beítsoak botaz; oleíkariak, edeslariak eta izlariak beren idaztiak adieraztearen. Aiek gorengo izneurítuak ondoen abestuaz, auek zilegitasunaz jaídutzen, edo Olinpiaí Jolasen ospa aundia aipatzen, ala beren abería goratzen. Batzuek bide-

erđian, besteak zutaři-koxketan, giro onak bařuti artako arbolak ere mař-mař jařtzen zituala.

Jaiak gauerđian bukatzen ziran, gero eguna zabaltzean jařaitzeko; toki gozatsu ařtaz gañera gaueko ilařgiak liluragařia zegian ango egoera.

Jaien usai gozoa adierazi dugun ezkeroz, orain beste indařketaen beřia uts-utsik demakegu.


Ikotikak.—Uste danez ikotikak (saltoak) luzeran bakařik egiten ziran Olinpia'n. Ořtarako pixuak jařtzen zituzten eskuetan; oņak, beřiz, ořpoz-ořpo, ta abiadurik ařtu gabe. Gauřko egunean ere zenbait indařkari pixuakin arituak dira jolasetan, baņo batzaldi edo konkuřtsoetan ez da ofelakorik ikusi.

Pixu oiek indař aundia ematen zieten saltoan; batzuek diotenez 15 metroan saltatzen zuten, beste batzuen iritziz 16 metro ta 30 zentimetro. Indařkari aiek gauřkoak baņo indařtsuagoak zirala uste dugunařen,

ez dugu sinisten orienbeste metroan aidean joango ziranik; onetan, gure ustez, okei bat dago. Aspaldiko idaztietan zenbaki gutxi arkitu dira ta agian aundituta.

Saltoak bitartean txistulariek Pitos'ko doñuak jotzen zituzten.

Kurpiġa.—Grezitariek botatzen zuten kur-



Miron'en kurpiġaria

piġak tilistaren (lenteja) antza zeukan ta bi kilo pixatzen zuan. Kurpiġa brontzezkoa zan

ta trintxarekin eginda mañezki edo dibujoak zeuzkan ikusgariz. Kuřpilak leunak zirala-ta, kuřpilariak autsakin laztu egiten zuten eskutik ez irixtatzeko. Besoarekin bira osoa egin ta abalañiaren antzera joaten zan kuřpil-txabala. Botatzeko tankerak orduko gizairudi, edontzi (edan-ontzi) ta mařgozkietan ikasi dira.

Gizairudietan edeñenetakoa Miron'en «Kuřpilaria» da. Irudi ori auñenekoz Miron'ek egin zuanez geroztik makiñabat aldiz berdiña egin dute, gauñ ere. Irudi oñen ikuste utsarekin kuřpil-uñutian ikasi diteke.

Kuřpil-jolasa gрезitañek soñtua da. Altis'ean iru kuřpil zeuden jasota.

Makiñā.—Makiñā botatzen zuten uñutian; ez toki jakin batera, baizik alik eta uñutiena. Indañezko aritzea zan, ba, ta ez trēbetasunezkoa. Makiñaren mutuñā zoñotza ta luzea zan.

Boñoka.—Boñokan garaituko zuanak auñek oa oratu, bere meneratu, azpiratu, egotzi edo bota ta iru aldiz joarazi beañko zion luñā

bizkañarekin. Jotzea ezik bide guztiak onak izaten ziran etsaia luñeratzeko: estafia es-tutzea, bulaña edo sabela belaunarekin bul-tzatzea, eta oietako batean bukatzen zan boñoka geienez. Aspaldiko boñoka, ikusten danez, gañ-egunekoa baño gogoñagoa zan. Gure sasoi onetan gutxitan gelditzen da boñokalarien bat ajola aundiko miñarekin. Ala ere, gñezitañek ez zioten ematen bures-tun edo koroia bere etsaia ilda garaitzen zuanari; batzuetan boñokalari ña garailari-tzat zematzen.

Boñokalaria bereala aunatu ez zedin, boñokan asi baño len olioñ igoñtzen zuan goñputz guztia. Ta koipeak eltzea zail egiten zuan ezkeroz, autsez edo ondañez laztu egiten zuten laña. Boñoka bukatu ondoren goñputzeko loia tñesna batekin kentzen zuten.

Boñokaren jatoña aspaldi-aspaldikoa zan. Indañkariak asko nai izaten zuten azpian añtzen aritzea. Beren indaña aundia zala-ta, sendoenak, antzatsuenak, legoiak aunatu ta luñeratzten zituzten, laxteñkarik azkañenez.

botatako zalguárdiak geratu egiten zituzten; baño askotan berentzat eziñezkorik ez zalakoan gaizki bukatzen ziran beren ańokeriak.

Ukabilketa. — Ukabilka aritzeko ukabilkariak idi-lańuakin biltzen zituzten eskuak, ugalak ukalondoan lotuz. Gauńko antzera ezin eskuekin edo besoekin oratu, ukabilekin jo bakańik.

Ukabilketa ez zan ikusgańienetako jolasa. Jazańlariak odolduta ateratzen ziran, zankobesoak ubelduta, masańezuńak, nańiotuta, begiak sańtuta ta belañiak aundituta; ziñez, eńukańiak ateratzen ziran. Jazańaren polita ezere uńatu gabe ateratzea omen zan. Españtańek galazi egin zuten ukabilketa. Ukabilkaritza bizibidez zeukatenak, oraingo ukabilkari zenbaitzuen antzera, trakets, asto ta panpańoiak ziran. Ańitzekoa gńezitańak gauzari aldeńdi edeńa bińatzen ziran bezelako zaleak izatea, ta alako ikusteaz gogo izatea.

Pankńazio. — Bońoka ta ukabilketaen ańtekoa zan. Ukabilez ala ostikoz jotzea bidez-

koa zan ta etzanda mutur-joka aritzea ere bai. Au ukabilketa baño askoz okefagoa zan.

Pentatlo.—«Pentatlo» izenak bost ariketa esan nai du. Bost ariketa oiek auek ziran: oñezko laxteřka, ikotika, kuřpil botatzea, makil jauřtitzea ta bořoka. Ariketak era askotakoak zirala-ta garaituko zuten gizonek ariřnak eta indarđunak batean beař zuten izan; oieri gauř ere indarđkari osoak deitzen zaie.

Zaldi-laxteřkak.—Zaldi-laxteřkak batez ere Grezi'ko aberatsen jaia edo «moda» ziran. Eriak ere pozik ikusten zituan laxteřka oiek eta beste egunetan baño onetan jende ta urđuritasun geiago izaten zala esan zitekean. Aberatsen jaia zala esan dugu ta ala zan, bada diru asko irauli beař zalako ezin zitekean nornai aietan aritu. Bein Alzibiades'ek eřegerik egin ez zuana berak egin zuan: zazpi guřdi Olinpia'ratuta iru sari irabazi, oietan lenengoa ta bigařena.

Zaldi-laxteřkak era auetara jokatzen ziran: zaldiz, bakařka; bi zaldikiko guřdiekin eta



Zaldi - laxterkak

laukikoekin. Guárdiak bi kuřpilekikoak ziran. Zaldietan ta guřdietan milaka ziran Olinpia'n.

Zalguárdiak eřa batean jařtzen ziran ta tutua jo bezin aguro aupaka abiatzen ziran amalau kilometřoko bidean. Oso zail izaten zitzaien zaldigizoneri uralako azkařean zaldieri beař bezela eustea. Azkařtasunari bařno trébetasunari geiago zoř zitzaion laxteřka irabaztea. Edozein egikera txař batek zorigaiztoa zekařkean, askotan geřtatu oi zan bezela; Delfos'en 41 lau-zaldikiko guřdien ařtean bat bakařa iritxi zan okeř gaberik elburura.

Elburura irixteko bira bakařa palta zanean aitzindariak tutuaz gogoarazten zuten. Ořduan ikusten zan ikustekoa, jendea kařaxika, azkeneko leia bizia zeramatela. Uřen garaileari iřnoizko txaloak jotzen zizkioten.

Suetonio'k dionez bein Neron kiřtenak olinpiař jolasetara amař zaldikiko guřdia bidali zuan. Guřditik bera erorita, osterajaři zuten; bařno ez zuan laxteřka bukatu al izan. Ala ere garailaritzat eman zuten. Neron'ek pozaren-pozez diru asko ta eřoma-

eñitañ aundiki-agiria eman zizkien juezeri, oñez gañera pñobintzi osoa azkatu.

Emakumeak aritu zitezkean zaldi-laxteñetan, ta badakigu Españta'ko Arkidam eñegearen alabak laxteñka bat irabazi zuala Josukisto aűetiko laugañen eunurtean.

Irabazten zuten zaldiaak oso omenduak izaten ziran, baita añizko irudiak eraiki ta ilobiak zaldieri egin.

Azkeneko jai-egunean sari banatzea izaten zan. Onekin batean pñozesio nagusia Altis'eko bañunbean; garailariak, oñdezkañriak eta aldunak añkitzen zirala, Jupiter'en etxean txapelduneri burestun edo koroia jañtzen zietenean ozteak iñintzi luzeak zegizkien.

Jaiak bakatuta, bazkari bikañak izaten ziran garailari aberatsek beren eñitañeri ematen zizkietenak, eta batzuetan Olinpia'n biltzen zan ozte guztiari.

V

Garailariak

Indaŕkari gazteak laxteŕkan garaitu zuaneko une aŕtara biur gaitezen. Oŕduntxen iñon diran zorionezko itzak letoŕzkioke zelaiaren toki guztietatik. Aideak eta adizkideak beren exeritokitik jetxita samuŕtasun malkoekin alderatuko zitzaizkioten; beso gañean aŕtu ta etoŕitako guztieri erakutsi. Biŕera osoak txaloak jotzen zizkion ta alkaŕi bultzaka bere gañetik loreak aŕapa-ala bota.

Aŕituta ikusten zuten indaŕkariaren tanke-ra jatoŕa, bere zanko-besoen gaitasuna, ibilgunearen txotiltasuna, makila uŕutian botatzeko pizkoŕtasuna ta tŕebetetasuna, kurpila bidaltzekoa, giaŕen indaŕa boŕokan, koŕikako arintasuna.

Garaipenaren itzala ez zan beretzat bakarrik izaten, bere jaiotería ta bere senide ta gurasoak ospe aundikoak izaten ziran.

Bere jaioteriak arizko ala brontzezko irudia eraikitzen zion ta onen etoferá ikaragaía izaten zan. Izena urrezko izki edo letraetan Olinpia'ko mármó-aríetan ipiñi ondoren, oialez eta urrez guztiz apain jantzita jaíaigo luze baten erdian sartzen zan txistu soñuarekin, ta batzuetan lau zaldi zuriko guñdi eder batean eriko arésietan idikitako bide batetik. Erídi batzuetan ez zuten garailariek zergarik ordaintzen edo bestela eríaren lepotik bizi. Esparta'n, guda (geía) zanean eregearen ondoan aritzen ziran.

Batzuetan garailarien izenak erietako kaleeri ipintzen zizkieten. Jaiak bukatu ezin alakoak; dantzariak eta kantariak nonnai lirak eta txistuak lagun zituztela; oturuntzak eruz, ta olefkaririk onenak orduan saiatzen ziran egiñalak egiten. Olefkarien artean geien ospatua izan zana Pindaro zan. Au olefki erítian gorengo malara igo zan. Onek esaten zuan garaipena, beste

edozein gauza baño obeto, bizitzaren argia dala ta zoriona dakařela.

Oleřkien indařez jainko-eřdiak bezelaxe ařtzen zituzten Gřezi'ko eřitařek ta garailari batzuek ilda gero ere guřtuak izaten ziran. Pindaro'enak ezik, Simonides'enak, Bakilides'enak eta Euripides'en oleřki bikařnak gauřdaño iritxi dira. Pindaro'en oleřki gorenetakoa Diagoras bořokalari gaztearen opaz egindakoa da. Ejina'n amař aldiz izan zan txapeldun, Korinto'n lau aldiz, Ařgos'en, Beozia'n, Ařkadia'n ta Megaro'n irabazita gero; ukabilka ere garaitu zuan ta bere izen ospetsua denbora luzerako zabaldu zan.

Ori guztiaz gañera dirua beřitan egiten zutenean garailarien izenak aundietsi ta baita beroien mařak jaři; bi ta lau zaldikiko guřdi garailarien izenak onela topatu dira zenbait diru zařetan. Garailari bakoitzak bere irudiko aři edo břontzea zeraikikean Altis'ean. Irudi oiek guztiek garailariaren izenak, bere aitarenak eta bere eřiarena zekařzkiten, oleřkari onenak itz neuřtuz jařita.

Askotan gizairudi oiek garailariek eagine-

razten zituzten ta eziñean beren eriek ematen zuten bea' zan guztia egiteko ta beren tokira eramateko. Oietako irudi batzuek eunurteak igarota gero jafi zituzten, garaipenaren sasoian dirurik ez zutelako.

Garailariak iltzen ziranean ikaragañizko ilobi ede'ak zegizkieten ta artaratzen ziranak biotz eta gogo betez gurtu.

VI

Olinpiar' Jolasen bukaera

Oraintxen ikusi ditugun Olinpiar' Jolasak azkenekoak izan dirala aye' izan gaitezen. 393'g. urtea da. Olinpia guztia ustu da, agian apaiz batzuek gelditu dira. Oñez, zaldiz, gu'diz ala itxasoz eto'itako Milesitarak, Espartarak, Pa'nondarak, Atenastarak, Dodonarak, Trazitarak eta Ejitotarak alde egin dute etxera urte onetako Olinpi'ko Jolasak ikusita. Len e'ri-alde askotatik eto'ita bildu zan oztea, orain zabaldu egin da ir'ten zaneke tokietara. Zer esan naiko izango dute o'fen urutiko a'riga'rizko ge'rtueraz. Ur'engo urtean orain bezelakoxe sua ja'riko dute itzetan; Jolastokian ikusitakoaz gogoratuta begiak zabalduko zaizkie, ta bein-edo-bein, ustegabeen, eskueri eragingo diete.

Ur'engo urtea eto'ri zan, ba'ño gauzak ez zijoazen antzi'ñako bideetatik. Len azkatua

ta gañen bizi zan Grézi-ería azkeneko sasoi onetan Eróma'k azpiratua zeukan. Eri bulartsua izatetik emetu egin zan. Lengo érti-lanak bezelakoak ez zirala egiten esango genuke. Aspaldiko jator izatea makaldu zan, ta beren gezuñezko jainkoekin ta Eleusis'eko eskutu edo misterioekin aras txaldandu ziran grezitarak. Sinisgaitza zaigu zentzuko gizonak erlijio artan gogo izatea. Giza-gorputza goresten eromatarak berak nazkatu zituzten beren betiko leloarekin ta eromatarak baztarak astintzeko izaten zuten gogo arekin alako batean Olinpia'ko tokia azpiz gora jañi zuten.

Ordurako Sokrates'eri Olinpo'ko jainko-izunek baño gorago al duana badala aitatu zualako astaperexila edanazi zioten; baita, Platon'ek bezela, berak ere Ortzea betikoa dala sinistu zualako. Artean Nazareth'en munduratutakoaren egizko erlijioaren indar-ak, Eróma'n kistarak ixuritako odol deunak, toki egiten zuten luñ-bira zabalean. Jainkoaren aurrean guztiok berdiñak egiten gaituan erlijioa azaltzen zan. Lengo gezuñezko jain-

koek erori bear zuten, gizon-jabeen oiturak aldatu bear zuten, kistañen garaipena bazetofen.

394'g. urtean Teodosio enperadoreak zingeen oiturak kendu; 426'garënean Teodosio bigañenak etxe-deun guztieri su ematea agindu, Fideas'en Jupiter'a antxen galdu; boskañen eunuñtean Fideas'en lantegian Josukisto guñtu; seigañenean orain erorita ikusten diran zutañiak luñikara batek bota zituan. Kladeos mendiko loiak eta Kronos mendiko luñ-etenak ondakin guztiak estali zituzten; antziñako gizabide edo zibilizazioa antxen bukatu zan. Artzaiak ondakin aietan egin zituzten bizitzak.

Orduztik Olinpia aztu zan. Baño geroztik ango luñak azteñtzen prantzesak izan dira lenbizikoak. Sei metñoko luñ-azpian topatu diran mañmol-irudiak luñikarari eskeñak topatu dira. Irudi eder oiek Louvre'ko erakustokian ikusten dira. Prantzesek Zeus'en etxedeuna azalera atera zuten; etxe onek baditu 66'60 metño luze, 30'20 m. zabal ta bañengo zutañiak 22'90 metño dute bururaño.

Uřena alemanek jařaitu zuten 1875'g. urtetik asita 1881'gařeneko bitarțean. Curtis jaunak III'g. Perderika'ri dirua eskatu zion Olinpia'ko bařena ikusatzeko ta bederatzi eun miřa frankoekin guztia ařotu zuten. 13.000 brontzezko pitxi, 6.000 txanpon, luřegosiko beste pitxi miřa, 130 giza-ařiak eta zenbait paper piřa bildu zituzten. Itsendokiaren ondoan idorotako brontzezko buruak, bořokalari ařo aien basotař begiratu ajolakabea dauka orain ere... Gauz oiek guztiekin jakin izan da Olinpiař Jolasak nolakoak izan ziran.

Bařo aitořtu beař dan gauza auxe da: topatutako guztiak Gřezia'n utzi zituzten alemanek, beren eřira batere eramane gabe. Auxe guztiek ezin dezakete esan, ez přantzesekek, ez ingelesek ere. Emeretzigařen eunuřtean jemeretzigařenean! sei itxasontzi bete eramane zituzten Partenon ondolik lapurtutako gřezitař lanez. Ařtean naiz oiek guztiak Laņoen-eřian egon berak egiņak ez dira, lan oien izena ta omena gřezitařena da.

Azken - Itza

Gure sasoi onetan Baron de Coubertin prantzés jaunari gogoratu zitzaion Jolas oiek beritzea. 1894'g. urtean asi zan bere asmoarekin ta zazpi urtean jardun zuan eten gabe alik-eta mundu guztirako Olinpiar-Jolas-Batzorde bat jaitzea lotu zuan arterano. Ta 1896'g. urtean izan ziran lenengo Olinpiar Jolas beriak, Atenas'en, Grezi'ko eñi nagusian, antzianako grezitaren omenaz. Gobeñnuak miloi bat drakma (grezitar peseta) eman zuan Jolas aiek antolatzeke ta egegea bera Jolastokian egon zan ikusle.

Oñduztik gure gauko mundu berri onetan lau urteke egin dira, antzian bezela, izen berarekin naiz Olinpia'n jokatu ez. Bigaren aldiz, 1900'g. urtean, Paris'en jokatu ziran; uñen, 1904'garanean, San Luis'en; ta gero, Londres'en 1908'garanean eta Estokolmo'n

1912'gañenean. 1916'g. urtean Berlin'en zan egitea, baño urte oretan «zorioneko» Gerate Aundia zala-ta, uts egin zan urte artarako. 1920'g. urtean Anberes'en jokatu ziran Jolasak eta 1924'g. urterako Paris aukeratu zan (1)

Oietara mundu guztiko indařkaririk onenak datořzke: saltoan ia 2 metro gora joaten diranak eta igari eun metro ia 52 segundoan dagitenak.

Anberes'en ikusi zanez finlandařak eta amerikařak dira yayoenetakoak. Indařkariak sailka etořtzen dira munduko eři bakoitzetik ta beren garaipenekin eřiaren izena goien jařtzen dute. Eři oietako goberñuek dirua eřuz ematen dute indařkariak saiatu ta geřtutzeko.

Jolas auetan azkařeko ta iraupeneko laxteřkak jokatu oi dira; oñez joatea; pixua, makila, maľua ta kuřpila botatzea; luzeran ta goieran salto egitea (abiadurakin ala ez);

(1) Ikusi «Ařgia»-n idazle beraren «Paris'ko Jolasak».

makilarekin salto egitea; sokatik tiratzea; «cross-country» edo landa-zear, eta Marathon, 42 kilometroko laxterka.

Olinpiar Jolasaz gainera beste Jolasak ere egiten dira zenbait erietan; ta bai dakigu Gotenburgo'ko Jolasak izaten dirala ta Soñtalde-Amerikakoak ere bai. Gure artean bein egin dira Eusko-Jolasak Donosti'ko udalari eskerak, Atotxa'ko zelaian. An izan ziranak arituta gelditu ziran eusko indar jolasekin uralako jai polita antolatu zitezkeala ikusteaz. Dantzariak, ari-zulatzaleak, pultsolariak, aizkolariak eta palankariak ezik, makil botatzea ta makil-saltoa ere sartu zitezkean.


Makilurutan euskaldunek tiratzen zuten eskubiko eskuaren aurrengo iru beatzekin erdi-erditik arituta besagain, gau bezela. Makil-saltoan beriz, gau bezela gora salta bearean luzeran egiten zuten. Orpoz-orpo saltatzeko oitura inoren bezin gurea da.

Eusko Jolasak ez lirake utzi bear. Oiekin batean estropadak eta pelota partiduak egin bear lirake. Eusko-pelota Paris'ko

Olinpiar Jolasetan sartuko dutelaren ustea da. (1)

Eusko Jolasak urte ta urteetan ospetsuak egin bear ditugu. Auxe da nere azken-itza, esandako danetan geien gogo zaitena; ta emendik nere biotz guztiarekin dei egiten diot Donosti'ko ayuntamentuari bere ardura-pean ain asiera edera izan zuten Eusko Jolasak beritzeko. Jolas oien ondoren olekisariketak egin bear lirake, indar-gaiaz egindako oleki oneneri bear bezelako sariak emateko. Gai oretako olekiek gure Eria sutuko luteke. Euskal-olektiak asko irabaziko luke Eusko-Jolasen gaietik sartuta.

(1) Pelotariak izan ziran Paris'en. Ego-aldeko euskaldunek irabazi zuten.



LARAÑAGA'TAR P.

ARATE

1923'G. URTEKO AZAROA'REN

25'EAN ETA LOTAZIL'AREN 2'AN

:-: IRAKURITAKO ITZALDIAK :-:





ARATE

(Lendabiziko itzaldia)

Jaunak, adiskideak:

Euskal-Esnalea bitarteko darian, ezin ni beiñere ukatu. Baña asketzi, entzuleak, beaŕ zan bezela ezin geŕtatu izan naizta. Itxaron det zuen eruapen bigunetik baŕka-mena; bestetik etoŕi naiz lagun aŕtera, jaŕdun alditxo bat alkaŕen aŕtian, anaitasun ta alkaŕtasun zintzoan egitera, ta ez jakintsu usayekin, zuek ez dakizuten zeŕ edo zeŕ erakustera. Nere lana eskax-xamaŕa izan aŕen, ageŕtuko ditudan ikusmirak jantziko dutela beaŕ baño obeki, iruditzen zait.

Lenbizi oaŕ bat.

Saŕera

Nik esango ditudazan guztiak, uste det egiak dirala, edo beintzat nik entzun ditudazan bezela edestuko ditut. Nere buruz, ez det uste ezeŕtxo ere asmatu detanik. Etxegarai jakintsuak diño ze, toki ta eŕi bakaŕetako edestiak, geikeri ta aundiegikeri asko ipintzen dituztela, ba noŕberan eŕian maitasunak itxututzen du bat, ta eŕez irudipenak egitzen ditu egian itxurarik ere ez daukazan gauzak eta geŕtaerak. Ba edestiño ta edeslari izen aundiko asko ere erori izan badira akatz onetan, Godoy Alcantara'k susmatu zuan bezela, ¿nolan ez da eroriko noŕberak ainbeste maite dituzan eŕi, toki, gauza, geŕtaera ta abarak edestitzen dituana? Auolan izan aŕen, Etxegarai ber-beŕak diño ze, une ta tokietako edesti oyek, beŕ-beŕekoak dirala, edesti aundi ta oso on bat egiteko; ba batetik esnatzen dituztez lo daudezen askoren asmoak beste edesti batzuk azaltzeko, ta bestetik eŕi ta tokietan bizi didadezenak, eŕezago dute beŕi askon

jabe egitea, ta esakera asko jasotzia. Onez gain, une-edesti oyek txit onak dira zer-esanak, atzalburuak, aztañenak, ziuñgayak, bai-ezak jakintsuen ańtian sońtzeko. Azkenik, edestitxu oyetan irakuńtzen dira ińioz, izpań, itxuraz ańdura gabekoak, bańo gańantzzi aundia eduki lezatekenak, Lord Macaulay'k oańtzen duan lez.

Ustez ba egiaren bila ibili naiz, ta egiak jaso ditut nere ibileretan; edo jaso ditudazan bezela ipińi ditut. Onegatik ez det uste ba, Maistre'k, *gizon onen gezuńa* deitzen dion ońbanian, erori naizenik.

Ańateko gańa

Ańateko gańa uste det izango dala Euskaleńia'k dituan toki politen ańtian politena. Kalamu mendi aundiaren magalian balego bezela, urńtetzen du mendi-bizkań batek, 560 neuńkińekua; esan letzake eńnai dagola, Eibań, Soraluze ta Elgoibań ańtian zeń geńtatzen dan zaintzen, ta ia Euskaleńi guztia bere besapian gońdetzen.

Arateko gurutzatik begiratu alde guzieta-
ra, ta zoragarizko poza artzen du biotzak,
ainbeste mendi, aro-tarte, itxaso, zelai, lan-
da, ibai, ikustean. Bizkai-aldera Urko
galurtsua ta Oitz liraiña; auferuntzago Gor-
bea'ren bizkañ zabala; gero Anboto'ko atx
gogoña ta aseletzua. Ezkeferago Udalaitz
bikaña, ta bere atzian Arlaban, Elgea, Alo-
ña ta San Adrian'go mendaitzak, ta urengo,
urutien, Aitzgoñi mendi eder ta bulartsua.
Napaña aldian, ikusten da Aralañ mendi
aundi ta zabala; bere ezkefetik beti ernai
dagoan Ernio; ta Loyola ta Iziar'en bitartian,
Izaraitz, Lizareta ta Andur. Gero ageitzen
da gure itxaso bizi ta urdiña, ta onen bul-
tzada eta jarraikadei eutsitzen bezela Arno,
edo Auereko-mendi, Arakistain'ek deitzen
dion lez.

San Juanetan, nere osasun biguña sendo-
tzeko asmuetan igota, arkitu nintzan orain
sei urte Arate'n; ara emen bere auereko
egunian, ilunabañian, zeñ ikusi nuan bertako
kurutzatik.

Mendi-gain baten arkitutzen naiz
San Juan aurreko gabian,
Txit beldufturik baniz bezela
Aunditasun au ikustean.

Gorbea, Anboto, ditut aurian,
Oitz eta Urko'n erdian,
Aitzgoñi luze, Udalaitez'ekin
Uruti nere ezkeñian.

Naparraldian Aralar aundi,
Izaraitz Ernio'rekin,
Arno galurtsu Bizkai aldetik
Kalamu belaratsuakin.

Ilun artian itxasua be,
Ikusten det ost-ostian,
Zerua beriz txit alaituta,
Dizdiraz izar artian.

Ni nagon mendi tontor gañian,
Gurutz bat dago zutuñik,
Bere besuak, maitasuntsuak,
Efi batera biurturik.

Dana zartadaz printzaz beteta
Eta luñera jausi ez dedin,
Dago lotuta goi eta betik
Burdinazko estuntzekin.

Estuntz bi goian, lau beriz beian,
Oyen artian zenbaki bat,

Mila zořtzieun ogei t'emeretzi ...
¡Oroigafia gureztat!

¿Nai dezu jakin toki polit au
Ze menditan dan arkitzen?
¿Nai dezu jakin nun dan gurutza,
Oyek guztiok oroitzen?

Esango dizut jakin dezazun,
Esango dizut pozařen:
Nik bezela zuk maite dezazun
Dago Eibar'ko Afate'n.

Ihunabařa eltzen danian
Mendi-tontor gain onetan,
Biyotz lařia, ikaratua,
Jasotzen da bat-batian.

San Juan-suak baztař danetan,
Piztutzen ikusten dira.
Euskaleřian otoi samuřak,
Zeruruntz izango dira.

Esan ditudan mendi danetan
Ikusten dira su-gařak,
Inguruetan ojuka dantzan
Pozařen gazte eta zařak.

Ikusmirarikan alatzena
Nere begien auřian;
¿Nolan biotza ez da poztuko
Geřtaerau ikustean?

Zu pozgañiok piztu dituzun
Baseñitar bulañtsuak,
Goñde gañbirik ta galdu gabe
Gure abendan ekanduak.

Euskaleñiko sinispenaren
Ageñkerik gañbiena;
Deun Joan suekin aitoñtzen dezu
Zerala Jaungoikoana.

Erbestetañen ekandu txañak
Gureak txit, il ez ditu;
Oraindik ere, naiz da gutxitxo
Batzuk dirade gelditu.

Goñde dezagun gure Eñia,
Polit, edeña, gañbia,
Baita izkuntza, ele maitia,
Jakindunen miraria.

Añate'ko zelai ta zugaztiak, zoragañiak
dira egiz.

Lenengo aldiz mendi-gain añtara eltzen
dana, alai añiturik gelditzen da zelai zabal
belañtsu ayetan. Ango odolki nastuko belañ
biguñak azpi-oyal etzangañik dirurie. Zuga-
tzak beñiz, eñeskada zuzen-zuzenetañ jañirik,
ain ugari ta oñitsuak dira ze, esan letzakez
mendi-gañeko kaliak dirazela. Pago zabal ta

mañdulak, aritz goñpuzki ta indañtsuak, le-
fondo lirain ta politak, kerizpe atsegintsua
idurizten dute. Gorosabel'ek diño ze, «Añateko
mendi gaina, zelai zabal ta atsegintsua
dala, eta zugatz eñeskadaz beteta dagoala»
Eta Zamakola'k «Añate'ko zelaia zabal-za-
bala dala, zugatzak, kalia bazelakez bezela,
zutik ipiñita».

Añate'n beti dago giro edeña; beti aiziak
firi-fara zugaztipeko keritzan girotzen du:
batian ifaña, bestian egoia, ta soñkaldekuak
ez bada sañkaldekoak, zoragañizko atsegiña,
berorik aundienetan ere ematen du.

Ez naiz ni añitzen ba, añpegi alai ta poz-
dunak beti ikustea Añate ganian, batez ere,
lenengo aldiaz ara igotzen dutenen añtian. (1)

(1) Itzaldi oen tañtietan Ojanguren añgazki-egiñe
tñebeak ateratako añgazki polit asko erakutsi zi-
tuan Lañañaga jaunak. Ementxe, lau ageñtu erazi
zituan: Zugaztiarenak bi, Añate-ingurua ta añtaldia
zelaian. (*Esnalea*'ren oañpena).

Arate'ren omen ospetsua

Arate'ren aunditasunak, bere maitaleak bakañik ez dituzte abestu; Gipuzkoa'n edes-lariak ere tinkatu dituztez beren begiak, izañ añgi ta zoragañizko oñtan.

Arate'ren izena Euskaleñi guztian ondo zabaldua egon da, igarotako gizaldietan. Bizkaitañak eta arabatañak oraindik ere abestutzen dituztez Ama Aratekoa'ren abesti aintxinakoak; napañtañak ere entzun dituztez Ama maite onen eta bere basa-txadonaren aunditasunak; gipuzkoañegatik ez dago zeñ esan; ta Euskaleñitik be iñten da atzeñietara bere izen ospetsua, ba Santiago'rako bideztiak, Arate'ko Eleizako ostatuan gauba igarotzen zuten.

Neonek entzun ditut bizkaitañ, arabatañ ta gipuzkoañ zañen aotik ainbeste abesti, ipuin, geñtaera, edesti ta abañ, Arate'tzaz: eta ñno-lako poz atsegin ta maitasun-malkoekin edestutzen zizkiraten!

Arate'ko Ama da Euskaleñiko Andñra Marien aññtian euskaldunena: ba ageñtu zan

mendi gain ori, edestiaren gora-beretan izan da Bizkaia'rena, Napa'ruarena eta Gipuzkoa'rena, ta Eleizaz baita Araba'rena ere; eta ez litzake sentzun gabekoa ziñeztutzea, Bayona'ko Gote'rikikoa ere izan dala. Izan da eta da gau' ere, a'antzalien Ama, base'rita'rena, eta kaleko langi'iena. Itz batian: A'ate'ko And'ra Maria, euskaldun guzien Ama, eta Amarik aintxi'ñenetakoa, Gipuzkoa'n beintzat. Abesti za' baten deitzen zayo *Amand'ria*.

Baño geure burutik ez deigun ja'rdun. Entzun ze' esaten duten Gipuzkoa'ko edeslariak.

Nikolas Soraluze'k, Gipuzkoa'ren kista'rtasuna azaltzeko esaten du, naikua dala begiratzia beren jai egunetan Loyola, Lezo, Arantzazu eta A'ate'ri.

Zamakola'k diñozku, A'ate'ko Eleiza txit ospetsua dala, eta be'rtara biltzen dan jende izuga'ria alde guzietakoa izaten dala.

Gorosabel'ek oso txukun idazten ditu ango jai alai ta pol'itak, eta beretzat, Euska-

leñiko entzuterik aundienetakoak dira. Lezo-kuak bakañik ayekin berdintzen ditu.

Manterola'k, mendi-gain oñen ta bere zelai ta zugaztien edertasunak edesti ta gero, an goian, jaietan, zortzi egunak nolan igarotzen dituzten idazten du; ta azkenez diño, an biltzen dan ostea oso ikaragaña dala, euskaldunak eta erbestetarañak ere ainbat etortzen diralako.

Aldazabal'ek, Iziañ'ko edestian, esaten du Eibañ poz-pozik egon letzakela Arate'n daukalako aberastasunik aberatsena.

Mañé eta Flaquer'entzat Arate izen aunkoa da eta bere zelai ta zugaztiak zoragañizkoak dira.

Eta beste askon esakuntzak utzirik, luze ta astunegi izan ez nein, bukatuko det atal au Trueba'ren oleñkitxu batekin:

Nuestra Señora de Arrate	Arate'ko gure Amak
Ha subido á la montaña	Igo du mendira,
Para bendecir mejor	Bedeinkatzeko obeki
A Guipúzcoa y Vizcaya.	Gipuzku ta Bizkaia.

Noiz ageitu zan

Auxen izango da lanik latzena, zeregiñik aztunena; ta ondo aditzen emateko, egiz biguriena. Eta berez iluna bada, bere aintxiñetasunian beñi ziguñikorik ez dagolako, ilunago oraindik azaltzen da, jakintsu guztiak oso naspilduta dabilzazelako arazo ontan.

¿Noiztik dago Arate gañian Andra Maria?

Iñoñk ez daki; aintxiñako odei ilunetan dago bere ageñkera, ta oraindik beintzat ez da uratu lañu ori. Baño zelan edo alan, uste det zeñ edo zeñ susmatu letzakela.

1563'gañenean, Pio IV'ak eman zuan Bulda bat, Lotaziñaren 8'tik Irailaren 8'ra Arate'ko jaia aldatzeko esanaz, Lotaziñako eluñ ta otzekin ez zalako eñeza mendi-gain artara igotzia: olan eskatu zuan Arate'ko Andra Maria'ren Anaideak. Auxe zan, amabost urte dala, Arate'ren aintxinatasunatzaz genekigun guzia. Bulda ortan ikusten da, Arate ortuan be aintxinakua zala, ta beñtan Anaide ospetsua zegoala.

Gregorio Muxika, Eibañko Euskal-festetan

saritatuko edestian, (1908) auferatu zan apur bat; esaten du 1498 urtean egurtzagatik egon zan auzi baten, azaltzen dala Arate'ko Andra Maria. Eta diño, geiago ezer ezin letzakela jakin, ba Anaide ortako Arate'ko ta Eibar'ko idazki, liburu ta beste agiririk ez dalako inun azaltzen; uste du, beste edeslari askokin, Frantzetañak Eibar ere zutenian, 1794'an, agiri guztiak ere zirala.

Nik apur bat geiago auferatu det. Arate'ko Eleizan dago Jesus auñaren irudi polit bat: dudik gabe, Ama Birjina baño askoz geruagokua da. Bai Andra Maria'k, ta bai Jesus auñak dituztez jantzi eder, urez apaindutako bana, berdin-berdiñak; Jesus auñanak du, zintzilik, urezko kate batetik, pitxi eder bat; iriki nuan, ta bañuan, ongi irakurteko eraz izki au: *1430 año*. Ez da ba zer esanik; garai ontan, an daude aspalditik Ama ta Semia.

Baño ¿noiztik egongo ote dira?

Zigur-zigur ezin bada ere, Euskaleñiko edesti-uskurtzalea lagun deigula, susmatuko degu gizaldiren bat. Egia, gure edesti-uskurtzalea be, ilun-samaña da, ta bere lagun-

tasuna ez da garbi ta argia izango, batez ere, lenbiziko gizaldietan; baño edeslari guztiak alkar xamar daudezan egietatik, zuzenduko gera.

Artarako egoki da zer edo zer, naiz ta labur, esatea, gure aintxinatasun-uskuritzea.

Jesu Kristo gure Jaunan ikastiak emen zabaldu baño len, ¿gure zarak zer sinistutzen zuten? ¿Jaungoiko bakañan gurtxaleak izan ziran, ala jaungoiko askonak? ¿Edo ez zuten batere uskurizik? ¿Edo gisa bera gurtxutzen zuten?

Emen gure jakintsuen buru - austeak; txoraturik bezela dabilzaz, aintxiñatasun ilun ortan, argi apur bat agiri naian.

Labayru'tzat euskotar ayek jainko-askon gurtxaleak ziran. Camino Orella, donostiaña be ortan dago. Uroz'ek ere olan uste du. Ta onen iritzia nik ere bidezko eta egoki artzen det; ba ayen oitura, abere eta basatañ bizi, mendi-tarte oyen arpegi, ta basomortu latzakin egokiago datoñela iristen zait. (*Baso-mortua* argazkian).

Henao'k aitoztzen du arazo zaila dala au erabakitzia.

Vinson'ek idazten du ez zutela erlijiorik batere izan, baizik basatañak zirala. Arturo Campion ta Julio Urkijo'ri, Urzi izenari begiratuta, iruditzen zaye ziñezkeak izango zirala.

Sabino Arana'k eta Delmas'ek beñiz eguzki guztzaleak izan zirala. Ramon O. de Zarate'rentzat ez ziran ez ziñezkeak, ez jainko-askon guztzaleak; ba nolán azke ta agintari gabe bizi ziran, beren uskurtz berezikoa zuten, Erómatañen jainkorik ezagutu gabe.

Asko dira lenbiziko gure Erian biztanleak jainko-baten guztzaleak zirala aitoztzen dutenak.

Ituriza'k diño guztu zutela egizko Jaungoikoa, izen onekin beronekin. Aita Larámendi ere oretan dago. Cejador'ek uste du, Moises bizi baño lenagotik, gure asabak deitzen ziotela Jaungoikoa, Egileari, izen onekin. Luciano Bonaparte'k eta Menendez Pelayo'k azaldu nai dute, ilargi-jaiari begiratuta, izen

gabeko Jaun bat guftu zutela. (1) Luzuria-
ga'k erakusten du ze Tubal, Moises'en iloba,
etoñi zala Armenia'tik onera, ta Beñmeo'n
bizi izan zala; beñsolari bikaña omen zan, ta
berak erakutsi omen zuan egizko Jaungoi-
koaren beñi. Ituriza'k sinisten dio Luzuria-
ga'ri; ta Aita Henao'k ondutzen du, esanaz,
Tubal'ek ekañi zuala Kurutzan beñiren bat,
ta emendik datoñela Lauburua. (*Il-beteko jaia*
ta *Basatar gudariak* argakian).

Navarrete ta Manteli'k ere olantxen uste
dute, jainko baten guftzaleak zirala; baño
ez Tubal ona etoñi zalako, etoñi beañik ez
zuan-da. Oyek oso itxurazkoa arkitzen dute,
Noe'n kutxa, uriol ostian, Euskaleña'n gel-
ditu zala: ba Flavio Josefo'k esaten duan
lez, gelditu bazan *Gordieyo* deitzen zayon
mendian, mendi ori Goñbea da; eta hebreo-
idaztien Genesis'ari begiratuta *Ararat* bada,
gure Aralañ beñ-bera da. Oñegatik nion,

(1) Menendez Pelayo'k iritzi au aldatu zuala
esan liteke; ba bigañen idaztian sumatzen du ibiak
ere guftu zituztela, *Deba*-izena jainko-izentzat
añtu-ta.

Tubal'ek Armenia'tik etoítzen nekatu beaírik ez zuala. ¡Esaten ez badirate Navarrete ta Manteli'k, Noe'k, negaíez utzi zuala toki zoriongaíi au, ta Tubal'ek, entzunik bere aitonari emengo edeírtasunak, etoíi zala, atsegiñez, lasai emen bizitzera!... Egia da, askok uste duala Jafet'en jatoíikoak dirala Eíromataí, Grezitaí, eta ziñeske guztiak, eta bere bostgaíen seme Tubal'enak iberotaíak. San Jeronimo'k esaten du, gauí España dan luía, Tubal'en ondorengiak biztandu zutela.

Azkenik baita ere ba-dira idazten dutenak, batzuk jainko baten sinisten zutela, eta mendi-taírtietan bizi ziranak, basataíak, asko guírtutzen zituztela.

Era guzietako iritziak daudez ba.

Guazen auíera; eta ikusi deigun orain, noiz besaíkatu zuten gure asabak Jesukisto'n sinismena.

Arazo ontan ere ameslariak ugari dira. Aíkitutzen ditugu batzuk, bayeztutzen 36 gaíengo urtean Kantabíriako Duke, Lucio Lupe, jun zala Jerusalem'era Ama Bírjiña

ikusten, ta Berari izkintzariak eskatzen. Uste dute 80'gañenerako kistatasuna sendo zabaldua zegoala emengo inguruetan, ta oñdurako Gotzaiñak ikusten dituztez Oñduña'n, eta ia ia Bilbo'n ere.

Asko dira uste dutenak, San Paulo Bel-duba emen ibili zala. Labayru'ntzat, Santiago eta Pablo izan ziran Euskaleñian, baño ez Bizkai ta Gipuzkoa'n. Castela Ferer eta Ojea'k beñiz diote Santiago eldu zala mendi arte ontara ere, eta Astigañaga'n egon zala. Lope Isasti'k be itxurazkotzat ematen du Santiago'n Gipuzkoa'rako etoñeria. Ituñiza'n esanez Santiago eta San Pablo izan ziran emen, eta 77'gañenerako euskotañak kñistabak ziran. Navarrete eta Manteli'k ere ontzat ematen dute Paul'ek erakustea gure eñian gurutz-bidea. Aita Henao'k ere oyekin bat egiten du; baita Lopez Mesa'k be.

Beste batzuk aitoñtzen dute, emengo lenbiziko izkintzaritzat, San Saturnino. Olan Iztueta'k, eta esanaz, Deun onek jaso zuala Zaldibi'ko eleiza, Gipuzkoa'n lenbizikoa. Lope Isasti'k diño Saturnino Tolosa'ko

Gotzain oreek zabaldu zuala emen Kisto'n izpañ ona; eta bide batez esaten du, Villegas eta Anduera'kin, Amiens'en ziñopatua izan zala 80 gañen urtean. Ituriza'k ere emen ikusten du Gotzain ori, Santiago eta San Pablo'n ondoren. Moret Josulaunak aitortzen du San Pedro'n ikasle oreek Iruña'n predikatu zuala lenbizi, eta gero Euskaleñi guztian. Ramon O. de Zarate'k, Lañeategi, Mendoza'ko Salazar eta Garibay'kin sinisten du San Saturninok zabaldu zuala sinismena emen.

Labayru ere ortan dago: baño onen ustez Deun ori irugañen gizaldian bizi izan zan, eta ez lenbizikuan. Eta San Saturnino'n alde dauden geyenak, erakusten dute jaraitu ziola Kisto'n izena zabaltzen emen, bere ikasle San Fermin, Iruña'ko Gotzaiñak.

Aita Lañamendi'k, Etxegaray eta A. Fita'kin uste du III gañen gizaldi erdian euskaldunak kistañak zirala. Aldazabal'ek uste du III gizaldiaren asierarako gure zañak kñristabak zirala, eta bere iritziz Gipuzkoa'n lenbiziko eleiza da Astigañibia'koa, bigañena Eloñiaga'

koa (Itziaf onduan), irugařena Elgoibař'ko O!aso'koa, eta laugařena Itziař'koa.

IV'gařen gizaldian křistabak dira gure asabak, Navarrete eta Manteli'rentzat; ta Calahorrako gogařtekoak.

V'gařen gizaldirako egon litzakez křistau biuřtuta euskaldunak, batez ere jaramon egin ezkerro edestiño batzueri; ba oyentzat Bilbo'n Katredala zegoan 480'gařenian, eta urte ontan bat egin zuan Armentia'koarekin. Beste edestiño batek, Hauberto'ri ezařia, baño itxuraz Antonio Lupian'ena, dakař sasoi ontan Donostia'ko sasi-Obispo bat, eta uste du Gotzaiñak zeudela Tolosa'n, Motřiku'n eta Bilbao'n. Diaz Arkaya'k gezuřtu ditu edestiño oyek. Baño itxurazkua dirudi, Euskaleřia křistaua izatia gizaldi ontan, ba olan susmatzen da Calahorra eta Iruña'ko beři batzuetatik.

VI gizaldian gařbiago ikusten da gure zařen sinismena, naiz da Labayru'k esan Gipuzkoa eta Bizkai'ko toki guzietan ez zegoala zabaldua. Dubarat'ek egiztu nai du Bayona'ko goteřkia sořtu zala 506'an San

Leon'ekin, eta Gipuzkoa'n zabaldu zuala Kisto'n beñi ona. Uñoz'entzat 589 baño lenagokua da Iruña'ko goterkia, ba urte ontan bere Gotzain Liliolo egondu zan Toledo'ko Gotzain-batzañian. Eta Camino eta Orella'ren ustez Gipuzkoa eta Bizkaia Liliolo baño lenagotik Calahorra'ko goterrikikoak ziran. Labayru ere iritzi ontakua da.

Ez dira falta esaten dutenak, VII'g. gizaldi arte jainko askon guñtzaleak izan zirala euskaldunak, ta basatar bezela bizi zirala, eta sasoi ontan San Amando'k egizko bidera biurtu zituala.

Ladislao Velasko'k, batere zalantzik gabe, ikusten ùitu kristau VIII'g gizaldirako. Morret'en ustez, gizaldi onen lenbizian, Gipuzkoa Iruña'kin bat eginda zegoan legez, eta esan litzake napañen sinismenekoak izango zirala. Ukatu ezin letzakena da, gizaldi ontan ba-zeudela Euskaleñian eleizak ugari mendietan. Edeslari geyenak uste dute lenbiziko eleizak, lekarotzetan eta mendi gañetan jaso zirala, eta pañokiak baso-txadonak baño geruagokuak dirala. Iziañ 714'koa da;

Begoña, A. Uriarte'n ustez, VIII'g gizaldia-
ren azkenetakoa, edo IX'gañenan asierakoa.
Ordoño'n sasoian jaso ziran asko.

Ziañotza 968'n jaso zan, eta X'gañen gi-
zaldian ikusten dira txadonak Donosti'n,
Érnani'n, Gatzaga'n, Deba'n, Astigañaga'n,
urian Elgoibar'en, Beñgara'n, Mendaro'n.

XI'gañenian, agertzen dira beste batzuk
Yureta'n, Bakio'n, Mundaka'n, Alboniga'n,
Añati'ko Arantzazu eta beste toki batzuetan,
eta geyenak lenagotik daudezen bezela.
1501'an Durango aldian eleiz asko dago,
Calahorra'ko Gotzaiñari, orduko nagusiak
Eleizeri ipintzen ziozkaten zer gen aurka
jaso zuten erenguretan ikusten dan lez. Ta
gizaldi ontan irakurtzen dira edonun, Gi-
puzko eta Bizkai'ko eleiz askon aldez ema-
nak, batez ere Deun Ander Astigañibia'koan
eta Deun Mikal Beñgara'koan aldez. Oyek
izendatzen ditut, nere lanerako egokienak
diralako. 1023'an beriztu ziran Iruña'ko
Goteñkiaren mugak. Deba-ibairaño 1080'n
(Kisto'n eran) Astigañibia'k Calahorra'tik al-
de egiten du Iruña'ra. 1108'n oteundutzen du

(consagrar) eleiz au Bayona'ko Gotzaiñak; eta 1118'n ikusten da Lope Eneko'n eman bat, beran alde. Eta 1194'an Doipuru Celestino III'ak osterera be tinkatzen ditu garbi Bayona eta Iruña'ko Gote'rkien mugak.

Ez det nai jaramonik egin Amador de los Ríos, Cánovas del Castillo, Cenac eta Moncaut'i esaten dutenian Jesukisto'n uzku'rtza ekañi zutela onera españañak, sañazenoegandik igesi onutz eto'ri ziretenian; ba Etxegarai'ta'ñ Ka'melo'k ziaz austutzen ditu, eta garbi eta txukun azaltzen du o'rdurako emen ezagututzen zala Kisto'n izena. (VIII'g gizaldia).

Biur'tu deiguzan ba begiak A'rate aldera, eta ikusi deigun Eiba'ñ aldia nolan dabilen garai oyetan.

Eiba'ñ, e'ri bezela so'rtzen da 1346'an. Be'rtako eleizarik za'fena da San Andres, gau'ñ Pa'fokia dagoan tokian be'rtan jaso, eta dakigu 1267'an ba-zegoala, Alfonso Jakintsuak egin zuan eske'ñ baten ikusten degulako; eta da lekarotzian jasotako elei-

za, inguruetan iñor bizi ez zala. ¿Noizkoa da? Ez dakigu zigur; baño Eibar'en 1200'an eleizaren bat badago, ba Soraluze eta Elgoibatekin, Eibar Markiña'koa da; eta iru eri oyek Gipuzkoa'gana batu izan azen urte ontan, eleizaz Bizkaia'kin gelditu ziran, Calahorra'ko Gote'kian.

X'ga'eren gizaldian eleizak ikusten ditugu Eibar'ko inguru guzietan, eta 1200'g. urtean ¿ez al dago Eibar'ko lu'rian eleizarik? Alonsotegi Migel Frailiak, Garibay'k, Inñiguez Iba'guren'go Juan'ek, Gainza'k eta askok diñote lenengo biztanleak mendigañetan izan zirala, eta lenengo eleizak ere basoetan jaso zirala.

Eiba'ta'ak bizi ziran Mandiola, Gorosta, Akondia eta Aritzmendi aldietan; A'rate dagoan mendian. Beren ar'itu-eman guztiak, Mar'kiña'ekin zituzten; bai eleizaz eta bai legez, Bizkaia'kin bat eginda zegoazen. Olantxe Untzeta'k, A'rate aldeko etxe nagusi ospatsuak, bere il-obia aintxin-aintxiñetatik Zia'roza'ko eleizan, jaupaltxuan dauka. ¿Ez da or'duan itxurazkua sinistutzia Eibar'ko

lenbiziko biztalién gogo, zaletasun, oldozpen eta bizitza, ma'rkina'ak eraginda izango zala? O'regatik, iñolazbe, esaten du Ajen-giz'ko Ignazio A. Buruñu'rdunak, A'rate'ko Ama bizkaita'ra dala, eta Eiba'aldia Bizkai'tik Gipuzkoa'ratu ebala 1027'an Napa'ruako Sancho IV'nak. Ez dakit nundik etara duan be'ri au; ba egia izan ezkerro, ontzat eman bea'ko genduke, eta edestitik, 1027'an A'rate'n izatia.

Ama Bi'riña age'rtuzaneko zeatzetan ikusten da, beian, ibai-aldian ez zegoala eleizarik, lenagokua da ba pa'rokia baño. Base'rita'eri galdetu ezkerro noizkoa dan A'rate, erantzuten dute jentila'rokua; au da, sinismenik ez zegoan sasoikoa. Eta edestutzen dituztez jentil ayen inda' ikaraga'rizkoak; nolan erabiltzen zituzten izuga'rizko a'riak, a'rdatza lepuan a'rtu eta bizka'rian bu'rdi be-tiak, eta sudu'retako aizeakin e'fota'riak, eta aba'. Eta Arantzadi eta A. Vallado'k era-kusten duten lez, sinismen oyek beren inda'ra dute, o'rduko gogo eta oldozkarian be'ri jakiteko; ez da ba zentzun gabia,

Arate'n asiera, relijioaren soñtzeran ipintzea, eta Mañkiña aldetik, bea' bada, Ziafotza'tik, bere sañera ikustea.

Arate-izenak, berak ere, aitoñtzen du bere aintxinatasuna; ba jakiña da Ama Biñjiñen izenak toki-izenak dirala, eta Martinez Agiñe'k diño mendi oñi Arate deitzen zaiola, Ama Biñjiña'k añi añtian iñten zualako; lengo izena uñian Aritz mendi zan. Eta Arate-izena aintxinetakua da, edestian iñuntasunetan eskutatzen dana.

Baño, sendotzen ditu iritzi oyek, Andñra Maria Arate'koaren irudiak berak.

Irudi onen ereduak, itxuriak, tankerak, aitoñtzen digu zigur-zigur, X'gañen gizaldikoa dala gutxienaz. Ikusi deigun.

A. Joxe Eujenio Uriarte'k, Orduña'ko Andñra Maria'n edestian esaten du, kistañtasuna IX'gañen eunkian ain zorionekoa zala Euskaleñian ze, geñtu zegoala Ama Biñjiña'ren irudiak egiteko, eta Grezitañen ereduetatik, Jesus auñ Amaren bulañ edo sabelari inkatuta ikusten dan ereduetatik alde egin,

eta eromataren tankerara egiten zituztela; au da, bizantino-itxuran.

A. Prantxisko Naval'ek, txit aitua arazu onetan, zenbatzen ditu iru tankera, Andra Maria'ren irudietan. Lenengoari deitzen dio *hierático*; bigarenari *transición*, (aldakera); eta irugarrenari *humano* (giza). Hieratiku oretan ageitzen da Ama auzez-auzez, arpegi ilun-samarakin, beti kutxa edo aulki baten esarita, eta da neurri txikietakoa; soñekua du goitik bera botata bezela, zimur gabe. Aurak bere belun bien erdian jarita, eta onetsitzen bezela, jasotzen ditu eskuiko eskuko bi biatz nagusiak; ezkerian darama idazti bat. Eta zenbat eta ezkererago jarita aman altzuan eta orduan da aintxina gutxiagokua; ba tankera onen azken-aldian ikusten da Amaren ezkerreko belaunian jarita, baño beti auzera begira. Amak dauka eskumako eskuan saga bat. Oyek geyenak dira eguzekuak, ureztuta. X, XI eta XII'garren gizaldikoak oi dira tankera ontako irudi oyek.

Bigarengo tankerakoak, *aldakerakoak*,

azaltzen dira askoz obeto egiñak, arpegi liraiñagoa eta gorputzan itxura ere bizi geiagokuak. Jesus aurá Aman ezkeréko belaurian dago jarita, edo ezkeréko besoan dauka, eta geyenian apur bat Aman aldera biurtuta, ez guztiz aurera begira. Neuri aundiagoak ditu, eta gai obia, baita ere obeki pitxiatuta; eta kutxitilan jarita dago. Inoiz ageitzen da Jesus aurá zutuñik aman magalian. Amak eskuan ez du sagarik, baizik usainki-sagar bezelako bat, edo zigor bat. Eta aurak, idaztian orde, edo ludi borobila, edo txori bat. Tankera au da XIII, XIV eta XV'gañen eunkian asiera arte.

Irugañenari deitu diogu *giza-tankera*. Irudi oyek zutuñik daude, eta Aurá du ezkeréko besoan, eta ageitzen da Amari begira. Geyenak XV' gañenekoak dira, naiz da XII eta XIV'gañenian ere zutuñiko irudiren batzuk ageitu.

¿Zer tankeratakoa ote da Arate'ko gure Andra Maria'n irudia?

Uste izan da beti, oraintxen lau urtera arte, ez zala irudi osua, baizik esku ta burua

bakañik zituala; beste guzia itsazkia, (postizo), itxuria bakañik zala. Begoña Aman edestia idatzi zuan Silverio Etxebería'k, 1888'an (1) idatzi zuan Arate'tzat oso poliki, eta berak ere esaten du ezin letzakela esan ze tankeratakoa dan, ba uretik ikusi duala, eta bizkañagian ebagita dagoala, eta zotz batzuekin gorputza eginda, inolazbe buruari eutsitzeko. Baño ez nengoan lasai beñi oyekin, ta susmaturik Ama ori Arate gagian aintxinatik zegoala, ondo ikusteañen, nolakoa dan jakin, eta ebakita bazegoan nola ebakita zegoan ikusteañen, soñeko guziak kendu ta dan bezelaxe egiz ikustea erabakitan nuan Mayatza'ren 5'ean (*Andria Maria jantxita, Andria Maria tramankuluekin, ta Andria Maria dan bezela, argazkian*).

Bai egin ere. Eleizako atiak itxi ta gero, gañeko soñekoa kendu nion Ama Birjiñari, ta soñeko au ondo gelditu zeikion ipiñita zeukan zurezko tramankulua laister azaldu zitzaidan.

(1) Eibar'en bizi zala.

Au kendu, ta bere azpian zeuzkan trápu zaí, ardi-ile ta ariak kendu ta askatu nituan, eta antxen ageítu zitzaigun Arate'ko Ama, dan bezelakoxea

Aulki baten jaírita dago Ama, ta magalian, apurtxo bat ezkeñera, bere auía dauka. Ama-semeak auíera begira ta oso arpegi ilunakin daude. Amak sagaía dauka eskumako eskuan, eta ezkeñarekin semiari eusten dio. Semiak beíz eskumako eskua ebakita dauka, ta ezkeñian idazti itxi bat darama. Biak irudi bat ziran, zur batetik ateriak, baña semia ebagita dago, ta ol pusketan baten bitartez auíera aterata. Buruan zurezko burestuna darama.

Zurezkoa da irudi guzia, ta berari inkatuta oyala darama; oyal au igeltsuz igurtzita ta unetan uíeztuta edo maígotuta dago.

Aman soíbalda zulo edo utsunia egoki xamaí eginda dago, iñolaz be goípuzkontzi bezela. Burestuna goía da, eta eltzen dio burutik beraño daukan soñeko-estalkiari; egoki jausten zayo soñeko au altzora, eta belaun-gañetan gurutzatu eta biuí eta zimuí

gabe jausten da beraño. Soñeku au ufeztuta dago, értzetan ari goñiekin, eta estaliak; (embozos) orlegiak (verde) ditu.

Aman irudiak neuritzen ditu oñetatik lepora, 29 neurkin eunen; eta emendik bures-tunan goraño, 12; guztira 41.

Naval'ek diño ze XVI eta XVII'gañen eunkian egon zala oitura ebakiteko eta beste era batera ipintzeko irudiak, soñekoz jaztiañen. Irudiak jazteko oitura XIV'gañetik datoñ, eta XV'ean ugaría izan zan.

Añate'ko Ama XV'an jantzita zegoan, eta trámankulu oñekin; alan ikusten da era oñtako (1.430) soñekuakin; ba Jesus auñan bezelako beñdin-beñdiña da-ta.

¿Zerñatik ebaki Semia, trámankulu oyek ipiñi, eta era oñtan utzi ote zuten Añate'ko Ama? Nere iritziz XV'gañen asieran oñaz eta ganboatañen añteko buñukak zeñ edo zeñ adierazitzen dute.

Añate'n oiñian dago Untzeta etxe nagusia, gaztelu gogoña sasoi añtan, Añate onduan duala bere guda mutilen etxia. Oñaztañena zan. Beian, eta Elgoibañ aldian Olaso'ko

gaztelua, ganboatarena: biak Enrike IV'g. bota egin zituan, beti bujukan zebiltzazelako. 1.272'gañenian ganboatañak inguratuta zeukaten Untzeta; Castiãa'ko Alfonso jakintsua, ber-bera, egondu zan buñuka oñtan. 1390'n egon zan buñuka bat Akondia gañian, eta oso odoltsua, Untzeta zala eta ez zala; eta 1446'n, Untzeta'k Zaldibañ'tañak lagunduta egin zuan triskantza bat Elgetañen auñka. ¿Ez ote zan jaso Andña Maria'n irudia belduñaz, España'ko irudiak bezela moruak sañtu ziranian, naspil oyetan ostu ez zezaten goñde nairik, obeki goñdetzeañen era oñtan biltzea? (*Sasoi eñdiko gudariak ta Sasoi eñdiko emakumiak añgazkian*).

Andña Maria'n ageñkera

Euskal-Eñi'ko Ama Biñjiñen ageñkeretan, geñtaera beñdintsu samañ asko ikusten dira. Geyenetan dago añtzaiñen bat; mendi leka-rotzo edo arantzañtia; eleizaren bat egiteko eñeguak; toki baten asi, eta añi ta trãmankuluak beste baten ageñtzia, eta abañ. Baño Añate'kuan berezizko geñtaera polit eta ga-

řantzikuak entzuten dira. An, inguruko baseřitar zař geyenak, ikusi ditut; eta beren aotik entzun ditudazan beřiak, jaso ta alkařtuta, zuzendu det gure Ama laztan ořen ageřkera. Ořa emen.

Aintxin aintxinan, Jesukisto Gure Jaunan irakaspena gizonan buruko iluntasunak kentzen asi zanian, zeruko izařa lenbizi ařgi egiten asi zanian, eta Aritzmeni ingurueta-ko baseřitar batzuk Kisto'gan sinistu eta beste batzuk oraindik zailxamařak edo sinismen otzakin zegoazen garai ařtan, ařtzai bat, bere ařtaldia, zelai zabal ařtako eřtz baten zegoan txabolan bilduta, lo zegoan. (*Ařate'ko lenbixiko bořda ta Ařtxaia ařgazkian*). Esnatu zuan ařgi bizi-bizi batek, eta ikusi zuan zeruko Ama, txit maitagařia: eta onek ageřtu zion bere gogua toki ařtan beřtan jasotzeko eleizatxo bat, andixek nai zielako inguru ayetako guzieri lagundu. Aditzen eman zien basařitar guzieri geřtaera au, eta nolan zebiltzazen eleiz bat egiteko asmuetan, sořtu zan baieza nun jaso biař ote zan eleiz ori. Ařtzai onek mendi-gaņeko zelai

aítan nai zuan, bere boídea zegoan aíi-aítian beítan; beste batzuk beian, ibai inguruan, beste mendiko biztanleentzat ere egoki izan zeidin. Indaí geyago izan zuan uste onek, eta oíela erabaki zan, aítzai zoriontsuan iritzian kaltez.

Asi ziran lanian. Baseíi askotakoak—batez ere Sagarítegieta, Pagoaga, Baíenetxe, eta Zelai'koak, guziak oraindik sinisgeak—paíe egiten zuten. Eliza asitzeko gayak ekaítzen asi ziran. Baña ¿zeí geítatu zan? Zurezko txabola batean danak goídetá, gabian joan ziran, eta uíengo goizian beíz lanerako asmuan joan ziranian, txabola baíuan etzuten ezeí aítitu.

Len aítatuko baseíietakoak ostuko zituztela uste izan zuten, ta joan ziran aye-tara, baño etzuten ezeí topatu. Zabaldú ziran mendi-alde guztietara zeí-edo-zeí jakin naian. Aítzaia juan zan bere boída aldera, eta ara nun ikusten dituan zelai-mutuían txabolatik ostutako íramankuluak.

Írintzika asi zan aítzaia, bildú ziran guziak, eta ikusirik ango baseíirik sinisgedu-

nak Zelai ta Pagoaga zirala, susmatu zuten oyek izango zirala trámankuluak ara eraman zituztenak. Deitzen diotez, eta gogor ukatzen dute.

Beñiz baieza jayo zan, nun jasoko ote zan eleiza. Ostera be bekoak irabazirik jetxi zituzten trámankulu guziak buñdietan, goñde zituzten txabolan, eta atia itxi zuten señaila aundi batekin. Eta baseñitañ oyetan itxaropena galdu zutelako, edo bateron batzuk zaintzen ipintziagatik, ematen diue lan au Zelai eta Pagoaga'kuari, esanaz: «Zaindu gauñ gabian txabol au eta ikusiko degu zuek izan ote zeraten gabeko lapuñak: biyañ goizian trámankuluak emen añkitutzen baditugu, ezagun izango da zuek izan zera-tela lapuñok; eta ostutzen badituztez, zuen eñua izango da» (*Añitain'go txabola añgazkian*).

An gure biak gau eñdian alkañ izketan. Alde guztietan ixiltasuna besteriz ez da; uñtzia ilun dago, lañutsu, eta egualdia otza; eñekako uran mur-muña besterik ez da entzuten; noizian bein txabola inguruan dabil-tzaz alde guztietara begira. Olako baten,

susmatzen dute bañuan zarata; alde guztietatik begiratu, eta dana itxita dago; señailia ere bere lekuan, eta atia ondo bultzatuta. Ol bitartietatik ikusten dute bañuan argi bizi-bizia; belduñez ikaratuta gizon bulañtsu ayek, nai dute jakin zeñ gerñtzen dan bañuan. Atiak señailan zulo bat zuan eta begiraten du batek andik; biyak nai dute ikusi bañenengo gerñtaera, eta biyak ezin batera txulo batetik. Onetan tinkatzen dute atezpian zirikitu ereki-samaña zegoala, eta Zelai'koa makuñtzen da andik begiraten, Pagoaga'koak txulotik ikusten duan bitartian.

¿Zeñ ikusi zuten bañuan?

Buñdi beñi eder bat, eta berari, apaingarñ eta egoki lotuta, bei zoragañizko bi: bata txuria eta bestia beltza. Eta txit alai ule goridun neskatila gazte lirain eta zoragañi bat, aingerua bezin arin, zoli, polit eta liraiña. Sinistu ezindako eñeztasunakin, jasotzen ditu buñdira trãmankulu guztiak, eta azkañ eta eñez igotzen du buñdi gañera; eskuan añturik akulua, eta beieri begiratuaz diño:

Aida, txuri ta belio...
Zelataka dagoanari
Begiak urten bekio;
Beñiz makuñka dagoana,
Okeñ gelditu beio.

Lenengo itzak entzutiaz bat, iriki zan guztiz ol-txabolori, eta odei argitsu batek artu burdia, eta beiak sosiguz-sosiguz zozela, an dijoa aidian zoragarizko burdi ura. Neskatiñ lirain ura, aingerua zan egiz; olan aitoñtu zuten basaritañ biak. Oek bere onera etoñi zirazenean laritasun mirari artatik, ikusi zuen, aingeruan itzak indartsuak izan zirala; ba Pagoaga ageñtu zan begi gabe, eta Zelai'koa makuñtuta, zuzendu eziñik. Gizalditik gizaldira eldu da Arate aldian beñi au, eta esaera da eunki askotan Zelai'ko oñordekua beti okeña, makuñtua, izan dala; gauñ ere olantxe da. Pagoaga'n beñiz beti begi batekoa. Oiñ-ontakuak irten zuten baseñi ortatik aspaldiz.

Edeskiak

Edeski (leyenda) oyek sinisteko, ez gauñ de beañtuta, danok dakigun lez; ez gezuñ-

tzat daudezelako, ba egiak izan letzakez, ez pada Eleizak ez dualako bere jakindurian bearkizun ori ipiñi. Baño ofengatik sinistu letzakez, b a Zeruko Ama'k geure gizaldian ere ofelako agefkerak egin ditu Alpes'etako eferkatxu baten eta Lourdes'ko arkaitzian.

Edeski oyek, beti dute beren ikuña, eta euren jatorian, zeñ-edo-zeñ egia beti egoten da.

Erien biotzan beñi jakiteko, erien oldozpena, gogo eta izatea ikasteko, edeski oyek aukerakuak dira, ba beren bitartez ikusten da erien asmu eta gogo-una. Asko egongo dira geyegiztuta, ez da zeñ esanik; beste batzuk itzulituta; zeatz asko geruago ezarrita, eta irudipenan asmakizunak ere bitartietan ugari sartuta. Baño, Arakistain yayuak oartzen duan lez, gauñ gizon oldoztsuak arduraz ikasten dituztez erien edeski (leyenda) oyek, beñtan goñdeta, ezkutatuta, gañantziko zeazkak arkitzen dituztelako. Cesar Cantu'k idazten du ze, edeski oyek, naiz da itxuraz amesak izan, egiren batetik edo geñtaeren batetik datozela, eta gizona aurre-

ko gizaldietan nolakoa zan ikasteko, asko laguntzen dutela.

Antxiñetatik, gizalditik gizaldira datozen abesti ta edeskiak, —diño Herder'ek —erien go'rdetuntzak, erien jakinduria, erien sinismena eta bere bizitzako izakera dira.

Suecia'ko jakintsu batek, Stokolmo'ko Elezaindian arazo onetzaz mintzatzean, esan zuan: Islandia'ko a'rantzalien e'ri-abesti ta edeski gabe, ez gendun jakingo eze'rtxo ere gure kondaira za'ran be'iririk.

Gure aintxinetako za'rak, Europa'ko beste e'riak ainbeste guda ta gora-beretan erori, il, da lu'rperatu ziran bita'rtietan, E'ri oyek beren izkuntzak nastatu eta galdu, beren abendak ondatu eta gaixotu, beren oroigai aundiak zatitu eta apu'rtuta ikusi zituzten bita'rtian, ainbeste ekaitz eta zoritxa' beren inguruetan zebiltzazen bita'rtian, go'rdetuzten osorik euren abenda, izkuntz, legeza', oitura eta u'rkutz deuntsua. Baño bein ere etzuten idatzi ondorengoentzat, ez euren be'iririk, ez euren lege-za'ran so'kerarik, ez euren egipen aundien azta'renik. O'regatik

edeski oyek jaso eta goñde beař ditugu ařdura aundiakin, euren bizitzan pusketak diralako eta gure aintxinatasunan ilunperan, ařgi apuř bat, eta gutxi bada ere, gizaldi auen lañua uřatzen dutelako. Gizonak, jakinde guzietan, gauza utsetik sařitan agiri izan ditu zoragařizko mirariak, eta guk ere, zaletzen bagerade aintxinako beři, esakuntza, ipuin, abesti eta edeskiak jasotzen, zulatu geinge poliki-poliki gure eřen edesti ilunian.

Aztikeria (supersticioso) dala esango du bateron batek lan au. Egia. Baño ez det esan nai izan ipuin eta edeski oyek guztiz egia diranik, baizik ařkitu letzakezela beren zeatz eta oařetan gařantzi aundiko gauzak.

Ařate'n batu detan Anboto'ko Damiaren edeskia, ĩnořk sinistu egia dala? Baño daude beřtan zeatz batzuk, oso egokiak gizaldi ařtako bizimoduan beři jakiteko, datořen igandian ikusiko degun lez.


Munduko eři guztietan, eta gizaldi dantetan egon dira edeski eta ipuin oyek. Len sořgiñak ziran; gauř ez da sinistutzen sořgi-

ñetan, baño gauñ sinistutzen da gogozaleta-
sunian, espiritismuan, eta ildako goguekin
itz egiten dute.

Gure eñiak ere, bestiak bezela, sinistu du
edeskietan; eta sinistu dualako eldu dira
gure gizaldiraño Lekobide, Utxine eta
Lañtaun'en izen eta alatzak; euretatik jakin
ditugu Eñnio, Gurutzeta, Oro-biok, Betzai-
deko gurendak. Eskeñak Alos'en abestiari,
zeñ-edo-zeñ jakin degu Gau-ila zeñ zan.

Franzi, Alemania eta beste eñi batzuk,
añduraz añtu dute edeski eta abesti oyen
biltzea, eta ori eurak edesti asko eta gañbiak
dituztela.

Guk edestirik, kondairarik ez degun ez-
kero, jaso deiguzen gogoz eta añduraz gure
zañen ezpañetatik entzuten ditugun ipuin
zañ, edeski, esakuntza, abesti eta abañ.
Izango dira jakintsuak edeski oyetatik egia
alde batera, eta gezuñ bestera aldatuko
dituztenak; eta guk biltzen ditugun gayekin,
jasoko dute gure Euskal-Eñi maite onen
edesti, kondaira egitsu eta gurendagañia.



A R A T E

(Bigaren itzaldia)

Ama Bifjiña'n agekerako zeatzetakin ikusten dan lez, Arate'ko lenbiziko eleiza arizkoa izan zan, baño gau'koa baño askozaz txikiagoa: amaika neurkin (metro) zan zabal, ama' goibe ta amalau luze. Orain dagon bezela, XVI'ga'eren gizaldian azkenerik XVII'ga'erenaren asiera bitartean jaso zan inolaz be. Ala dirudi arkitu ditugun be'ioetatik: 1577'ko Jo'aila'ren l'ean Amberes'en Flandes'ko Gudaroztien Zenbakari zan eiba'ta' bikain Franzisko Elexalde'k

egin zuan ilburukoan (testamentuan), Arate'ko lanetarako 50 dukat utzi zituan, eta beñtako emakume txadontientzat amabi dukat. Arate-anaideak eta Eibar'ko Erietxeak alkañtasunerako zeukaten araudian, Arate'ko Anaidea jasotzen ari zan etxe eta Eleizarako beñko ziran ondasunak aitatzen dira. Gañera, Urkizu-etxeko andreak Arate'ko lanak egiteko 1608'gañen urtean sei dukat utzi zituala ere badakigu. Ta beñioek guziak argi erakusten dute eleiza arateko lanak egiten noiz ari ziran.

Len eleiz txikiak bazuan kanpaia. 1583'an zañtatuta zegoan, eta Goñdexola'ko Diego de Lanzagoñta'k urtu-erazi ta beñitu zuan. 25 aratz zituan, eta aratz bakoitzeko emeretzi eñialian beñitu zuan. (*Arate'ko txabola, Arate'ko lenbixiko eleixa, Oraingo eleixa etxiekin, eta Eleixa bakarrik luxerara*, erakutsi ziran emen)

Gauñko eleiza, mendi-gañekoa izateko, oso aundia da. Goibe eta zabal lenagokua bezin da, baña luzez 39 neuñkin ditu. Kanpantoria bi aldiz beñitua da; bein, Udalak Bagila'n l'ean arñutako erabakian ikusten

dan lez, 1670'gañen urtean, eta beñiro 1740'n; orduan ere Udalaren aginduz, eta Zuaznabara argiñak egindako asmuan. Eleiz-
atia ere sasoi ontakua da. (*Añateko eleiza
bakarik, toñe ta eleixpiakin, auñetik, argazkian*).
Kanpantorian bi kanpai daude: txikia
1709'an egiña, eta aundia 1731'koa.

Bañutik itxas-ontzian irudia du eleiza
onek. Ez da txit apaindua, baño añlotia ere
ez. Eltzea (boveda) oso edeña du. (*Eleix-
baña, telapea ta korua, zapian*) Egizko ontzⁱ
baten tilapea da, bestealderatuta. Eguñezko
irurogei saiets ditu, eñdian apur bat txit lirain
beratuta, ondatuta. Eleizako añia Gorotakoa
da; ateko añi landuak beñiz Igeldo'koak.

Ama Biñjiña'n aldaria bakara-bakaraetakoa
da. Eleizpe bat dirudi, eta buñdinsare oso
edeñ bat du. (*Eleixa-bañuko buñdin-saria ar-
gazkian*). Aldare-auñiaren beia urdinskoekin
apainduta dago. Ama Biñjiña'n txokoa urez-
tuta dago, ta oso itxusi ematen du, ez da al-
darian gisakoa-ta. Beñi-xamaña da, 1815'e
Mendizabal'ek egiña, eta bere kñistala Ba-
yona'tik ekaña.

Aldarapian ariarte bat dago, eta esaten dutenez antxen beñtan zegoan txabola Ama Birjiña artzaiari irten zitzaionian. Zuloaga margolari ospetsuaren lau margok inguratzen dute aldaria. (*Ama Birjiña ta margoak argazkian*).

Baztarta Ama Birjiña'ren beste irudi bat dago. Inolazbe 150 urte baditu, ta buru, sorbalda eta eskuak besterik ez du.

Aldara-gañian Kristo'n aldara ikusten da (*Aldara au*, argazkian). Inolazbe jauntxuren batzuen edo ongileren batzuen kokotak gordetzeko egindako kokotegi bat, lau zuloekin, dauka onetan. Kokota bat bakarik dago gau, eta dirudianez emakumeana. Etxe-nagusien arteko naspil eta buruka batzuek zirala-ta, XVIII'g. gizaldian ostu zituzten beste batzuek. (*Kokot-zuloak ageitu zituan emen*).

Aldara onen alboetan bi gorputzontzi azaltzen dira. Austuta daude; garbitu nituan, eta bakoitzean azurtxo bat topau nuan; batek, *St. Emiliani* diño.

Beian bi aldara: bata San Jose'na (emen

dago Gure Jauna), ta bestia Santa Ana'na. Irudi au jatoría da: semia, ama ta amona egur batean aterata ditu. (*Santa Ana'n aldaria ta Jesus-aurá aŕgazkian*).

Polita da ate-auréko ur-ontzia: arzturizkoa. Aurian du ikur bat aingeru bik eutsita, eta erdian zugatz bat bi otxokin; inguruan itz oyek: «Mare finis in spe nobilitas et arm...» Orman sartuta dagoalako itz guziak ezin irakoíi letzakez. Berdin-berdiña dago Eiba'ko parokian, eta onen itzak olan dira: «...tiquo medium per mare finis in spe nobilitas et arma». Emen ere orman apurtxo bat sartuta dagoalako, izki guziak ez dira ikusten. Baño uste det osotu letzakezela era ontan: «Ab antiquo medium per mare finis in spe novilitas et arma». Ez dakit ze' esan naiko duan; nere ustez emanlean ikuríña eta edeskia dira.

Lenengo txuneskiña 1667'an egin zuan eiba'ar' txaneskinlari Fray Jose Etxebaría'k, 200 dukatekin, ba lan guztia duan egin zuan. Gaur oraindik ere an ikusten dana 1816'an egiña da, Manuel Carvajal

Zestuagakoak: kostatu zan 6.772 eñial. Gauñ mutututa dago, aizpo biak zulatuta eta ziaz apurñtuak ditualako. Bere ordez arñmonium eder bat dago.

Abesti-liburu eder aundi bat, Pedro Lopez de Iñarra, Toledo eta Guadalajara'ko kanoñnigo eibaññak emana ere, badago.

Zintzilizka dagoan itxas-ontzia 1785'n arñantzaleak Amari eskaññak emanaz ekaññia da.

Inguruko zugatzak eta bidiak, XVII eta XVIII'gaññen gizaldian Udalak, Eleizak, eta beste batzuk emanaz jaññiak eta geññtatuak dira.

Garai ontakuak dira bideko iru eleiztxuak; Ama Biññjiña'n pausuak esaten zaye. Esaera zaññia da Ama-Biññjiña iru toki oyetan atsegin-du zala Arate'ra igo-ebanian; edo aitatutako buññdia, trñsna eta trñmakuluekin toki oyetan gelditu zala. Gauñ galdu dira; bat bakaññik dago osorik, bañño ez eleiz bezela, baizik estalpetzat.

Noizkoak dirazen arñizko mai ederak, ez dakigu: bañño XVIII'gaññen gizaldian an dagoz.

Gurutza beriz, noizkoa dan ez dakit, baño an dago 1652'an. 1839'n ekaitz batek bota zuan, eta beste bat jaso zan; gauñ zañtadaz dago, buñdiñazko lau arokin gogoñtuta. Beñtatik ikusten dan ikuspegia zoragañizkoa da, esan nuan bezela. Antxiñako abitza (tradición) da, bere inguruan iru aldiz ibili ezkeru bakoitzian Salve bat eresatuaz, ezkongei aukerakua azaltzen dala; ez dago zeñ esanik gazte asko ikusten dirala Gurutza inguratzen. *Añate'ko añizko gurutza añgazkian*).

Añate'ko Anaidea

Añate'ko edestian antxiñatasun guztia ilunian ziaz ikusteañen, Anaide onen asieria ere ilunian dago. Bere arautegirik ez daukagu, osuan beintzat, baño ezin letzake ukatu XVI'gañen gizaldia ezkeru Añate'ko bizitzan biotza, Añate'ko jaien indaña, Añate'ko aunditasuna, berari zoñ zayola.

Kofñradi oñen izena zan *Añate'ko Ama Zoriontsu Soñkundean Anaidea*. Bere asma oso ongaña gizañteantzat izan da, Pio

IV Doipuruan Bulatik ikusten dan lez. Lenbizi eibařtařentzat bakařik zan; gero Ama Biřjiņa'n maitale guztientzat.

Lenengo aldiz ikusten degu Eri-etxeko arautegian, ba beřtan irakořten da Paulo III'gařenak, 1534'tik 1550 bitařtean Doipuru izan zanak, Anaide oři eman ziozkazela bařkamenak eta jubileoak.

Bere buru edo zuzenlari lau otsein-nagusi (mayordomos) zeuden, ta oyek erabiltzen zituzten Ařate'ko gora-bera guztiak. Izentatzen ziran urtero Udala'k eta apaizak bat egiņik. Ařate'ko ondasun, aberastasun danak oyek gořdetzen zituzten, eta ango diru guztia ere oyek zuzentzen zuten. Otseinnagusi izatea omengarřia zan, naiz ta lana ugari eman bere zeregiņa ondo betetziak; ořegatik notin izen aundikoak izaten ziran geyenian. 1650'tik asita, bat, nai ta naiez, baseřitařa, eta beste bat kaletařa izan beař zan. Oyez gain zegoan beste bat, «Ama Biřjiņa'n soņeko-gořdetzařea» ¡Auxe bai zala omentsua!

Auřera jařaitu baņo len, obe izango degu zeř-edo-zeř esan Pio IV'gařen Buldiatzaz.

Len Arate'ko jaiak ospatzen ziran Abendu'n 8'an, ba Arate Ama'n izena, bere lenengo gizaldietatik, zan Soikunde Garbiko Ama. Baño garai ortan egualdi txarakanolan egiten dituan, eskatu zion Anaideak Aita Santuari Iraila'n 8'ra aldatzeko baime-na. Bulda da ba, eskaera oni erantzuten. Luzea dalako ez deritzot irakoitzia; baño esan bear det arkitu detala Bulda ori euskeraz itulita 1787'an Joxe Maria Etxezarreta fraile agustindarak. Erderaz ere berak ipiñi zuan.

Buldatik ikusten da Anaidian arautegia beste Anaide berdintsuen bezelakua dala; eta izentatzen ditu Anaide oren lanak eta zeregiñak; orenngati bertatik atera liteke Anaidean izatea.

Ara emen Pio IV'gañenak emandako barkamenak eta zerçgaitiak; esan dedan bezela, gizarterako ardura aundikoa da.

Bi urteko eta beste ainbeste larogeikaroko barkamenak ematen dizkie:

Edozein goimatasunezko (karidadezko) lan eta laguntasungatik.

Txirueri, batez ere txiro lotsagañizkoeri, ukañakin laguntziagatik.

Gazteiei beren ikastietan laguntziagatik.

Irakasliak duarik eukitzen laguntziagatik.

Gaxuak ikusi, eta eri-etxietan eureri laguntziagatik.

Gaxo txiroeri eleizakoak aítzen eta beren azken-guramena egiten laguntziagatik.

Ondo iltzen laguntziafen.

Euren il-eleizkizunetara, eta goñpua illobi-
ra eramaten laguntziagatik.

Bizi eta ilegatik, Eleiza Ama Santa'n asmu eta ontasunagatik, baita ere Laterian on, pake eta zorionagatik eregutzeagatik.

Eleizakoeri laguntziagatik.

Bidezkaiak (peregñinoak) etxian aítu eta jaten emateagatik.

Neskatila txiroeri ukañ bitañtez, dotiakin ezkontzen laguntziagatik.

Emakume galduak bide onera ekaítzeagatik.

Eñu txikiekin espetxian dagozenie azkatasuna iristen laguntzeagatik.

Sasi-umeak, eta gurasoak laguntasun gabe utziak, jasotziagatik.

Bautizatu gabiak bautizatzen laguntzeagatik.

Beste egipen on, aitoitu, Gure Jauna aritu, egun izentauetan Eleiza ikusi eta abai, egiteagatik.

Esan liteke gizaldi artarako ondo baze-goan arautegi egoki eta gizarteko ori, gauko premiñetarako ere ezin letzakela obeki izan.

Bulda oren baimena ematen zuan lez, aldatu zan jaia, baño oregatik Lotaziñan jaraitu zan bere Soikunde-egunean ospatuzten Arate'n jaya, baño erikoengatik baka-rik, ba jai aundiak aldatuak gelditu ziran. Oraintxen 90 urte arte, urtero ospatu izan da Arate'n Soikunde eguna.

Jaia aldatu aien, Buldak esaten du ze, Arate'ko Aman izenak jaraitu beai duala Soikunde Ama deitzen.

Aldakera onekin eta Anaidea'k zeukan indarakin, bat-batian gañantzi aundia aritu zuten Arate'ko jaiak. Euskal-Eri guztian

zabaldu zan Gure Ama laztanan izen nai-
gañizkoa.

Baño jai oyek edestu baño len, jañaitu
deyogun Anaidea'ri.

Bere jaia, berekoña, Kofradia'koa, Arate-
egunetik urango igandian ospatzen zan. Iru
edo lau egun lenago igotzen zuten Mayoř-
domuak eta janaldi-geřtatzaleak, eltze, to-
pin, lapiko ta ontzi izugañizkoak eramanez.
Janariak ere eruz eramaten zituzten, eta
txalak beřtan il. Anaide'ko guziaz limosna
baten bitarřez jaten ematen zitzaieten. Baño
iñoiz Anaide'koak ez ziranak ere inguratzen
ziran jateko, eta orđuan palta zan dirua
Mayořdomuak beren zakeletik orđaindu
beař izaten zuten. Kalte au zuzentzeko eta
anaideak jan gabe gelditu ez zitezen, eta
naspil eta zeř esanik egon ez zedin Udala'k
bein baño geyagotan erabakiak arřu zituan.

Eri-etxea ta Anaidea batuta

Pablo Gorosabel'ek dionez, aintxiña- ain-
txiñatik ezagutzen da Eibař'ko Eri-etxea.
Eriak berak irasia zan, eta txiro, eskeko

eta pelegriñuai oya, sua ta a'rgia ematen zitzayeten. 1587'an ogetalau oge zeuzkan beteta, eta mendi bat, sagasti, kastañadi eta lu' batzuen laguntasuna besterik ez zeukan.

Eri-etxe au, 1595'ean, Anaidea'kin batu zan. Jo'fai'la'ren II'n bildu ziran batzar' agi-rian pa'rokiko il-obian, eta Ma'rtin Unzeta alkatiak esan zuan bere iritziz txit egoki izango zala Eri-etxea ta Anaidea alka'rekin batutzea, Pio IV'ga'renak ere bere 1563'ko Buldan biak be'rdintzen zituan ezkerro. Oso ongi a'rtu zan alkatiaren iritzia, eta lau jaun izendatu ziran, Anaide'koekin bildu eta araudi be'riak egiteko.

1600'ga'ren u'rtian ikusten danez, bete zuten agindu ori. Egin zuten araudian lenbi-zi diño ze, Eri-etxea Anaideekin batutzean zeukaten asmorik sendoena, Anaidea'k ze-koazen ba'rkamen eta laguntasun gogozko guzia irabaztea zala. Arautegi be'ri bat egin eta Eri-etxea'ri A'rate'ko Ama'ren izena ematea erabaki zan; ta bai E'roma'n dagoan Santa Saxeako Espiritu Santuaren Eri-etxe

nagusi ta beñtako Letran'go San Juan eta Santiago'ren Eri-etxeakin batutzea ere, oyen bañkamen eta ongañi guziak irabazteko. Araudi au Calahorra'ko Gotzain Pedro Manso'k ontzat eman zuan 1601'an.

Eri-etxea guztiz beñitu zan orduan. Txadonak lau aldare zituan: Arate'ko Ama Sor-kunde Garbia'na, Gurutz Deuna'na, Nazarenua, eta Ama Nekane'na.

Iru erako notiñak aítzen ziran Eri-etxe ontan: eñiko zañak edo sendatu ezindako gaitzdunak, eñiko gaxo txiroak, eta bidez-koi dontsu edo peregrinuak; lendabizikoak ondasunik bazuten, etxiantzako utzi beañ zituzten.

Eri-etxe ontan, eñikuak toki batzuk zituzten, eta eñbestekoak beste batzuk; 15'gañen arauak ala agintzen zuan: «eñiko gaxo eta zañak onak dira, ta ez degu nai eñbestetañekin nasterik». Eñbestetañai oge, arñgi eta sua ematen zitzaieten: 10'gañen arauak agintzen zuan eguñra ugari edukitzeko, ta sua eñuki gabe egin zedila peregrinuak otzik eta bus-tirik izan ez zeiten. Peregrino geyenak

España ta Frantzi aldetik Santiago'ra zijoa-zenak ziran.

Mayordomuak bi ziran, «izen oneko gizonak, eta zerekin erantzun zutenak», eta larunbat guzietan ikusi bea' zuten Eri-etxean ze' ge'atzen zan, eta be'tako be'i eman alkate eta pa'okuari. Onek be'iz, asteroko gora-bera guzia igandero pulpitotik adierazten eban.

Seroria bat zan; oitura onetakoa, ezkon-gaya edo ala'guna, ta 40 urte ba'ño geyago-kua izan bea' eban. Eri-etxeko gauza guzien zuzentasun eta ga'bitasuna zaindu bea' zuan, eta ala egingo zuala zin-egiten zuan sa'ntzerakuan. 30 dukat irabazten zituan urtero.

Izen eta bizimodu txae'korik ez zan Eri-etxean a'rtzen. Egunero e'rezatzen zan Agui'tza. Peregrinuak eta e'besteta'ak, Pazkua-kua egin zutela adierazten zuan txae'tela erakutsi bea' izaten zuten, eta ez bazuten, iruga'ren eguna ba'ño lenago be'tan a'rtu bea' izaten zituzten sak'ramentuak. Gaxorik zeto'renak, sendatzen asi ba'ño len konfesatu

ta komulgatu bea' zuan, eta gaxorik gaizki xama' bazegoan, Iku'nton azkenak a'rtu, k'ristau bezela iltzeko.

O'relaxe ja'raitu zuan Eri-etxe onek, 1794'an p'rantsesta'rak e're zuten a'рте.

Iraspenak

XVI, XVII eta XVIII'ga'ren gizaldietan ez dago eiba'ra' aldunik A'rate'ntzat ze' edo ze' ematen ez duanik, eta ilburuko askotan irako'rtzen dira A'rate'rako azken-emanak. Luzia izango litzake, bilduta detan izen txo'rtia irako'rtzia; o'ngatik ez det irako'riko. Ba'ño izendatu bea' dira batzuk, a'rdurarik aundienekoak.

1662'an Iraegi eta Zumendiaga'ko Domingo, Capitan bikai'ña, eiba'ra'rak, Mexiko'n iltzanak, ipi'ni zuan kapelani bat lau mila dukatekin: bea'kizunik aundiena zuan larunbat guzietan eta Ira'la'n 7'an mesa esateko; azken au oso aundi eta ospatsua.

Sebastian Herbiti'k, eiba'ra'a au ere, Mexiko'n 1726'ga'ren O'ri'la'n 8'an ipi'ni zuan beste bat A'rate'rako, 1550 dukatekoa, jai

egun guztietan mesa esateko. Poliki-poliki galdu ziraden, eta 1828'rako inholazbe diru gutxi ematen zuten, ba Arate eta Gorosta aldeko baseñiak laguntzen zioten Apaizari. Apaiza Arate'n ez zan egoten, ba mesa eman ta jaisten zan kalera; baseñitarak ori eskatu, eta parokuak ukatu, soñtu zan auzi bat 1863'an, eta ibili ziran Kalahorra, Burgos eta Madril'en, Rota'n; baseñitarak galdu zuten, baño 1881'ean eleiz gauzak zuzendu ziranian, Parokian apaiz geiago ipiñi eta bat Arate'rako izan zan.

Gizaldi oyetan Arate'k maitasun aundia du eibartaren artian: ez da bakañik Erietxia Arate'ko Ama'n izenian dagoana, ba Parokian ere bada Aldare bat Ama onen izenian, eta Ama Nekane'ri ere deitzen zayo Arate'ko Ama Neketsua. Antonio Bentura Sustaeta apaizak, 1783'an jaso zuan Maltzako bere lurretan Eleiza bat Añarte'ko Ama Birjiñan izenian, bere irudi bat bertan ipintzeko asmuan, «Arate uruti zegoalako, eta igo ezin diran zañ eta gaxuak, euki deiten urian eta egoki bere Irudi bat».

Eleiza jaso zan, baño ez zan ipiñi irudirik. Asmu onetzaz ekañitako Ama Birjiña txiki, polita, Pañokian dago; ez du Añate'koan antzik iñundik ere. Apaiz onek bere azken-erabakian utzi zituan 1811'an Añate'rako 30.000 eñial, eta berak agintzen zuan bezela, oñduantxe apaindu zan Ama Birjiñan aldaria, eta oñgaño beñia ere egin zan.

Ama Birjiñan soñeku, koroï, eleizako kaliza, jantzi eta abañ, ez det ezeñ esango, batetik gauñko entzuleentzat ez dutelako añdurarik, eta bestetik azken gabeko izen eñenkadak aitatu beañko nukezelako. Bakañik esango det, egunoro eramaten duan koroïa 1584'eana Andres Otalora'k emana dala, eta gauñ Añate'ko oñmetan ikusten dan Gurutz-bidea, Añate'n maitale zintzo Agustín Enbil jaunak bialdu zuala.

Fñeirak eta ostatua

Adierazi dan bezela, Añate'n jende asko ibiltzen zan; ez Ama oñen maitaleak bakañik, baita Santiago'ra zijoatzen pelegñinoak ere. Oyeri lagundutzeko, atsegiñ emateko, eta

nun lo egin izan zezaten, Arate'ko Eleizakin bat eginda, bere telapian zegon Ostata, gau' Partxuanekua deitzen zayon etxea. Etxe onen eta Eleizaren zaitzale, Anaidea'ren nagusien menpean emakume batzuk zegoazen.

Freila oyek oso ezagunak dira gure edestian. Lafamendi Aitak diñonez, Eleiza'ren lenbiziko gizaldietan baziran diakonisa-antzeko emakume batzuk: eleiza garbitu, zaindu eta orelakoak ziran beren egitekoak; gau' serorak dauzkatenen antzekoak. Diakonisa oyek lenengo obispoak ordenatzen zituan; gero kendu zan ori, baña ala ere ezin ziran ezkondu, berogei urtetik gorakoak izan bear zuten, eta bizimodu eta oitura onekoak. Gipuzkoa'n freira izatea, bere bizi-bidea, bere estadua artzia zan, monja izatea bezela, eta ezkontzia oso itxusi izango zan. Parokuak izendatzen zituan batzuetan, bestietan Anaideko Ugezaba Nagusiak edo baso-txadonetako nagusiak; baña gero, bere «vita et moribus» ikusita, Gotzañak eman bear zieten bere

baimena. Dotia eman bear zuten, eta bere jantzi jakiña zuten. Eleiza garbitzea, txukun edukitzea, aldarak prestatzea, elizako soñekoak eta zapiak zaitzea, argien olioak ekañi ta ipintzea, atiak iriki ta itxitzea, ta orelakoak ziran beren zeregiñak.

Eibañ'tañ Eleixalde Flandes'ko Zenbaki-leak 1577' an egin zuan azken-asmoan ikusten danez, Añate'n oñdurako bai ziran freirak. 1623'an bost ikusten dira, eta bat guztien nagusi, eta zaintzen zuten Eleiza eta Ostatua, eta noizian bein Eñiko Eri-etxea. Eibañ'tañak ziran, eta izentatzen zituan eñiko Zuzentza-Batzañak (Consejo de Justicia) eta zaldidunenenak (Regimiento de Caballeros), eta oñdaintzen zuten beren dotia. Len esandako lanen gain, batzen zuten eñiko txiroentzat eta beañtsuentzat ukaña.

Iñolazbe pozik zeuden eibañ'tañak beren freiren lanakin, 1617'an geñtatu zanetik ikusten dan lez. Urte ontan irakoñi zan pañokian Calahoña'ko agindu bat esanaz ile bi bañu kentzeko serora guztiak, eta beñirik ez ipintzeko; ez ta sakñristau ezkondurik be,

euren emazteak seroratasunakin gelditu ez zitezzen. Zeñ esan aundia jaso zuan agindu onek, eta Bizkai'ko Batzar Nagusia altxa zan bere aurka. Eibañ'ek 1617'ko Azaroa'n (Nobre) 26'ean erabaki zuan, okeñ aundia zetoñela serorak kentzetik eta jaramonik ez egiteko agindu ori. 1623'an Mondragon'en bildutako Batzar Nagusira bialdu zuan bere ordezeko bat, Loyola'ko Pedro, eta eskatu zuan laguntasuna freiren aldez: Batzarak ontzat artu, eta beregandu zuan auzia: eta olantxe Batzañen ordezeko batek eta Eibañ'ko eñian beste batek artu zuten auzi ori, Eibañ'ko pañokian eta baso-txadon guztietan zauden freiren aldez. Auzia ibili zan Burgos, Valladolid eta Eñoma'n eta 1623'an erabaki zan freiren aurka. Eta olantxe Alkatiak eta Sindikoak jaso zituzten Arate, Aginaga, eta beste baso-txadon guztietako giltzak eta artu eman guztiak, eta irten zuten freirak. Baño urte askorako ez, ba 1670'ean ostera-be azaltzen dira *garbitzale edo mirabe* bezela. Inñolazbe izena aldatu, eta beste izen onekin jañaitu zuten XVIII gizaldi arte, ba

oꝝduan Anaideak eta Anaideak eta Udalak izendatzen dituztez sakristauak. (Aꝛate'n beintzat).

Ez zan naikua Ostatu au ainbeste jende goꝝdetzeko, eta 1788'an erabaki zuten Udalak eta Apaizak beste etxe bat jasotzea Aꝛate'n; eta olan jaso zan. Eta geroago ikusten da etxe au ere ez dala naikua; ba irikitzen dituztez gelak toꝛeko oñetan, bizi-tzetan.

Iskanbilak-Anabasak

Iñolazbe, oitura zan noiz nai Aꝛate'n mesa eta bispera abestuak ateratzia, paꝛokiako abeslari eta jaupariekin. 1623'gaꝛen uꝛtean eꝛenguratu zan paꝛokua, eta abeslari ta apaizak Aꝛate'ra joaten baziran paꝛokia batere gabe gelditzen zalako, guzien baimenik gabe ara joatea galerazi zitzaieten. Aꝛate'ko zenbakilaria altxa zan, eta galerazpen ori kentzeko laguntasuna eskatu zion udalari. Oꝛtik auzia soꝛtu zan, uꝛte betean gogoꝛ jaꝛaitu zuan, eta azkenik ara zeꝛ erabaki zan: Aꝛate'ra joan zitezkeela, baña uꝛteko iru edo

lau jai aundienetakoetan parokian gelditu beaiko zutela abeslari ta apaizak.

Gabon gaba ta Aiate'ko jaiaren aurreko gaba elizan beitan, Aiate'ko eliza-baivan igaro tzeke oitura zegoan. Moskoirtuta, ta bea ez bezelaibiltzen ziran ordea neska-mutilak, eta Calahorra'ko Gotzainak oitura ori kendu nai izan zuan, gaba elizan igarotzia eragotzi ta atiak itxiaz. 1661'gaen urtean udalak agindu zuan bea ez zan gauzarik egitea berak galeraziko zuala, ta Aiate'ko ateak irikita egon zitezela len bezela. 1688'gaen urtean baimena emanda zegoen, baño 1692'ean beiz kendu zuten. Eta bai udalak beiz eskatu ere: mutilak eta neskak aldeztuko zituala, eliza-baivan ari ta burdinezko saria jariko zutela luzera guzian eta alde batean neskak eta bestean mutilak jariko zirala, eta gaba an pasatzeko baimena beiz eman zezala eskatu zion Gotzainari. Eman zuan, eta XVIII'gaen gizaldian indar aundia zeukan oitura onek. Jende asko etortzen zan inguru guzietatik gaba igarotzera; elizpea, torea, ostatua, ta toki guziak betetzen

ziran. Emendik etoñi ziran iskanbiñ aundiak, eta Gipuzkoa'ko Eñejidore Cano Mucientes'ek eman beañ izan zuan agindu gogor eta mingañ bat, iskanbiñ eta anabasa guztiak kendu, oiturak zuzendu, eta alkarñtasun garñbia goñdetzeko, bai eleizan, bai inguruetan.

1884'ean beste iskanbiñ bat soñtu zan, eleizpian eta inguruetan beañ zan lotsarik goñdetzen ez zalako. Gotzaiñak eleiza itxi zuan; udalak agindu zuan dantzarik eta beañ ez zan sal-erosterik ez zala izango, eta beñiz iriki zuten.

Añate'ko jai ospetsuak

Igarotako gizaldietan Eibañ'en kñristautasuna aundia izan zala, ukatu ezin liteke. Deun Iñaki, Soñkunde, ta beste jai-egun guzietan ageñtu izan du bere sinismena. Añate'n alde beñiz, beti eñi osuak, bere Udala buru dala, arñdura aundiak añtu ditu.

San Juan'ak, lengo gizaldietatik, ospatsuak izan dira Eibañ'en; ezin liteke aditzera eman nolako arñduria añtzen zuan Eibañ'ko

efiak San Juan-egunak jaitzeko. Ba, Arate'ko jayak San Juan'etakoakin berdin ziran: Zezeil'go Diego alkateak 1.739'an eman zuan agindua irakoñi besterik ez dago. Arateak baño egun batzuk lenagotik, kaliak beritu, etxiak margotu, ta etxe-inguruak garbitzen ziran. Jayak ondo, pakean eta alkaritasun pozgarian igarotzeko, 1744'an agindu eta erabaki aukerazkoak eman ziran; agindu oyetan esaten zan erbestetar asko etortzen zala egun oyetan Eibar'era, eta bear ez zan gauzarik ikusi ez zezaten, arduraz eta txintxo ibiltzeko.

Bi eratakoak ziran Arate'ko jairik ospe-tsuenak, eta gau ere ala dira.

Jesukristo'n Igokundekotik urango igandian izaten dira udaberiko jayak. Pañokiko abeslari guziak eta apaizak igotzen dira, ta goizean meza nagusia ta aratsaldian bezperak eta Mayatzeko lorak izaten dira. Gero dantza, ta Eibar'tik notin izugaria izaten da, eta inguruko erietatik ere igotzen dira. 1.776'ean idatzitako apaizen bearkizun eta baimenetan esaten da, oitura au oso aintxi-

nakoa dala. (Arate'n egun ontan ateratako auñes-
kua, argazkian).

Jai oek eta beste amaika egunetan ematen ziran mesak ez dira, ordea, Arate'ko jai ospetsuenak, Gipuzkoa'ko edeslariak aitatu ta goraltzen dituzten jayak. Iraila'koak dira oek.

Iraila'ren 6'a da. Goizian goiz, Erebala-
aurian burdi eder bat ageitu da; bi bei ditu,
bata beltza, txuria bestia, eta baseñiko ma-
yoñdomuak darama. Amabi dontzela geituratu
dira guñdira; txuriz eta guziak berdin
ederki jantzita datoz. Konbentura igo ta
konbentutik jetxi, Ama Birjiña'ren jantziak
eta elizarako tresnak laister ipintzen dituzte
guñdian. Azkenik, kutxa eder bat, eta onen
baruan koro, agurtza, ta balio aundiko
gauzak.

Guñdi au oñela antolatu bitartean, bi ziñe-
gotzi baseñitarak dabilnaz beste bi guñdikin
kalez-kale, jai-egunak Arate'n igarotzeko
asmua duten ziñegotzien oi, ontzi, jantzi ta
gañeratikoak biltzen. Guziak bildutakoan,
Lekaimetxeko kanpanak jotzen asten dira,

ta kirinka artean an dijoaz iru gurdiak Arate aldera.

Baseñitak pozez agurtzen dituzte bi-dean, eta sutunpak eta dunbadak bota ere bai. Arate'ra irixtea beriz pozgarria izaten da. Kanpaien otsak, an bildu dan jendiaren garaxiak, santzoak, eta abestiak, entzutekoak izaten dira.

Egun artan amabi dontzelak garbitzen dute eleiza, aldarak ere bai, Ama Birjiña jantzi, ta guzia prestatu. Arbola-tartian beriz jantoki ta erantokiak jartzen asten dira.

Illearen 7'a eldu da. Txistuak kalejira egiten du, eta seiteñdientarako apaiz eta ziñegotziak, abeslari ta beste jende asko, biltzen dira Udaletxean. Guziok Arate'ra beriala. Amañetan eun dukateko mesa, Iraegi'k ipiña; ordubiteñdientan besperak, eta ondoren auñeskua auñena ta beste dantzak gero. Artsalde guzian jendia eruz dator. Seiteñdientan eleiza beteta dago, ta salbia, ainbeste izeneko salbia abestuten da. Al duten eibañtañ guztiyak goyan daudez; gauberako batzuk eleizan sartzen dira, bestiak

ostatuan, bestiak inguruko baseñietan, eta batzuk erira jetxi ere bai.

Ilaren 8'a ¿nok edestitu bear bezela? Alde guzietatik, Akondia, Euba, Azitain, Maltzaga, Saturixo ta beste toki askotatik ikaragarizko taldiak datoz. Oñez, zaldiz, astoz, an datoz ume, guraso, zar eta gaztiak. Batzuk laister jeisteko; bestiak, janariak berakin dituztela, egunetarako. ¡Egun zoragarriya!

Ona emen Mendigoiti baseñian, ingizar artian, arkitu nituan itzneurí batzuk. 1710' ekuak dirala diño, ta, itxuraz, abestutzekoak ziran.

COPLAS A M.^a SSMA. DE ARRIARTE

AÑO DE 1710

Oi au egunaren alegría
soñtu zana Eibar'ko luñian
Iraia'ren zoñtzigañenian,
Birjiña arkitu zebanian
pastore pobre batek mendian
ta Añiañtian, Añiañtian,
jafirikan,
Añiañtian, añiañtian

jetxirik zerutik
beti izateko, beti izateko,
gure ańtían, gure ańtían.

*Emen, emen, emen da ańkitzen
Birjińa txit eder bat Ariarte baten.
Seńora zeńtan dago jesaririk emen
pekatari tristiak bilabanengiye.*

Atozte Afate'ra jentia
aldapan bada ere nekia
adoratzen birjińa santia.
Izanik bada au gure jabia
emango digu bere gřazia
bai alkantzatzeko, alkantzatzeko,
zerutikan
alkantzatzeko, alkantzatzeko,
biań degun guztia,
baldin bagatoz, baldin bagatoz,
umildadiaz, umildadiaz.

Emen, emen, emen da ańkitzen...

Nekez eltzen bagera ere ona
aldapa andi oietan gora,
emen ańkitzen degu Ama ona
gure jabetzat etońi zana
ezin geiagoko zoriona
da Jesus'en ama Jesus'en ama.

Ona emen gizaldi ontako beste neurítiz batzuk. Ilara batzuk palta dira, ezin osatu izan ditut-eta.

Oñen jaiotza eder
mirariz betia,
datoñ zelebñatzera,
Birjiña Maria,
eñi askotatikan
jende txit noblia,
aldapa aundi oietan
añturik nekia.

Ea bada, Birjiña,
graziaz betia,
ez beza añen faltatu
beroñen grazia,
bada zoro bezela
denpora guztia
eman degu ofenditzen

.....

.....

gure uts egitia
gutziz andiago da
miserikoñdia
onezaz betia
dudakiran ez degu
au alkanzatzia.

¿Noŕgana juango gera
Birjiña amandria
ofenditu ezkeru
berofen semia?
Oregana ezpada
ba da jabia
ta zu pekatarian
Ama txit maítia.

Izugarizko ozte aundi oyen artian askok igotzen dute agurtza érezatzen, beste askok oiñutsik, eta banaka-banaka ere ikusten dira oiñutsik eta lepoan arantzak dituztelaz.

Begiratu Arate'ra: zugatz-inguruetan suak, janak gertatzen, ainbat barikada; éri eta abade-etxiak txinduri-zuluak dirudite; alde guzietan jendia salda artzen; an eta emen zaldiak, bioak, astuak, burdiak, eta aruntzago txapeldun neskatila lirañak.

Bederatziterdietan ibildeuna. An dakaíte Arate'ko Ama; an datoí zugaztian guzien maitasunak artzen. Gurutzera iristean Eibaí' era begira jaítzen dute, eta ama askok igarotzen dituzte beren aurak Amabirjiñapetik.

Gero Mesa nagusia izaten da. Jentia elizan ezin kabitu izaten da, ta Mesa kanpotik

entzun al izan dedin elizako atiak irikirik uzten dira. Seímolariya bikañenetakua: be-
rógei eñial ematen zaizkiyo, ta euskeraz egiten du bere itzaldiya.

Mesa ondoren Ayuntamentukuak auñes-
kua ateratzen dute. Gero bazkaldu: alde guzietan jentia jaten ari da, ta iñorentzat paltatuko danik ez uste, Udalaren aginduz aragia, ogia ta ardua ugari igo dira-ta sal-
tzeko. Apaizak, berak duten etxian bazkal-
tzen dute, eta Ayuntamentukuak ere berean, seímolariya buru dutela. Kapia artzera apai-
zak ere Udaletxera joaten dira.

Gero bezperak izaten ziran, eta azkenik, ilunabañeraño eñomeriya.

Noiz nai abesti edeñak entzuten ziran. Eibañtañak eta beste eñietakuak ere baze-
kizkiten abesti oyek. Ona emen geyen zabal-
duta zegoana. (Eibañ'ko neskatx-taldeak abestu zuan, izlaria onera irixtean).

Añate'ko zelaiko
bai floridadea;
andixek gora dago
zerura bidea.

Aldatza igaro ta
zelai landa baten
Birjiña ta Semia
atsegin ařtutzen

Lirio berdez jantzirik
dago Ařate'n altaria;
aintxen kantatzen dabe
edeřki Salbia.

Zerura gura neuke,
zerura boladu,
aingeruak balidakez
eguaκ preřtadu.

Eguak balituzkez
ařgizarizkuak
uřtuko lituzkela
eguzki klaruak

Bai eta ausi bere
ipařtxo senduak,
bai eta ausi bere
ipařtxo senduak.

Zerura nua ni ta
ęnořk naidu etoři?
orain etoři jataz
iru mandatari.

Atzo etoñi jataz
iru mandatari,
uso zuri edef bat
aingeru polit bi.

Uso zuri edeña
¿zeruan ze beñi?
Zeruan beñi onak
orain eta beti.

¿Zef da dakazu bada
zeruko gauzarik?
Oñibi adañtxo bat
Bifjiñak emanik.

Bifjiñak emanik ta
¿noizko izentaturik?
Eñamu-eguneko
bai señalaturik.

Eñamu uñin da ta
ipañ ez paledi
ori igañtzen bada
beste bat ekañi

Zeruan asko dagoz
oñibi adañk,
oñibi adañik eta
lilio lorarik.

Lilio lorarik eta
Santu ta Santarik;
ez dala igar̄tuko
zeruko gauzarik

Aita San Pedro dago
zeruan giltzadi.
¡Ai, Jaunak egin banindu
giltzaren jabedi!

Atiak ereteko
aita neuriari,
lenengo aitari ta
ur̄engo amari

Andik eta auñera
mundu guztiari,
andik eta auñera
mundu guztiari.

Araba'ko Villarreal'en eta Geñnika'n ar-
kitu nuban oleŕki au:

Aŕate'ko zelaiko
bai lorategie
andixi gora igota
zerura bidie.
Aldatza pasa dute
zelai edef baten;
an dago Jesukŕisto
Mesea esaten.

San Pedro ta San Pablo
Mesea erasoten,
Aita San Prantzisko
ofgañue joten.
Amabi apostoluek
koruen kantatzen
miñe ta bost aingeru
zeruan kantatzen.

Orain abestuko deguna, Angiozar'en jayo
ta Mendigoitia-baseñian bizi dan emazte
zarak abestu ziran. Bere amonari ikasi ziyon,
eta orain larogei urte asko abestutzen oi zan
bere eñian. Orain entzungo dezute, Aita
Donosti'k ereskidetu ta Eibar'ko neskatxak
abestuta:

Birjiña Arate'ko
Birjiña Maria,
zuri ta enkañada
zerura bidea.

Urango au, larogei urteko Partxuaneko
Tomas'en autik entzuna da. Piano-laguntza
Aita Donosti'k jañi diyo abestiyari:

Arate'ko zelaiko
bai floridadea.
andixek gora dago
zerura bidea.

Nere Ama Birjiña
Kontzeziñokua,
aſen, mobitu zazu,
neronen gogua....

Zeruko jaſdin edef
loraren aſtian
egon beaſko degu
egunen batian.

¿Noiz etoſiko ote da
egun edef ori?

Bai, etoſiko jaku
oſduren batian.

Iragoſi'ko Joſje'k abestu zidan bat entzun-
go dezute orain. Orain beſogei ta lau urte
larogei urterekin il zan bere amonagandik
ikasia omen da. Amona oſek beſtso asko
kantatzen omen zituan au osatzeko, baña
Joſje'k bat bakaſa zeukan goguan. Ona
emen neronek musikaz antolatuta:

Ama Birjiña Aſatekua
aſkaitz aſteko loria,
astera nua aingeruekin
esaten *Ave Maria*.

Au ere berarena da, ta neronek ereski-
detua:

Ama Birjiña Aratekua
pekatarien ama,
zeruko lora edereez
jantzirik zaudena;
graziak ematera
nator ni Zugana.

Guxtiz peligró aundixan
bizi gerade emen,
guardatu gaizuz Ama,
zerurako, afen,
gero egon gaitezen
alkaŕekin antxen.

Zure paraji au
prestatu zanian,
lau pausuan aguro
zeuk igo zenduan.

.....

Mendigoiti'n ingi zaŕen arťian arkituak
dira oyek ere:

CANCIÓN DE NUESTRA SEÑORA
DE ARRIARTE

AÑO DE 1784

Mendian izateko zeruba bezela
Jesus'ek esan zuben beria zubela,

Amari esanikan afen zetoñela
Añi arte batetik Eibañ goñdetzera.

*Zorioneko añañtia, zorioneko mendia,
zorionian degu onera etoñtxia.*

Apenas esan zion Bifjiña Amari
etoñi beañ zubela mundukuegatik,
erantzun bide zion biotza idikirik:
«Guazen Seme maitia, mendira beñtatik».

*Zorioneko añañtia, zorioneko mendia
zorionian degu onera etoñtxia.*

Ea bada Señora Añañtekua
eman biañ diguzu betiko gogua
onera etoñtzeko.....
magal zabal oñetan bizi oi gazala.

*Zorioneko añañtia, zorioneko mendia
zorionian degu onera etoñtxia.*

Onek bestiok ere, beñtan, Mendigoiti'n
añkituak dira. Nik ezditut iñun entzun, baña
idatzitako erak abestuak izan dirala esan
nai duala dirudi.

VERSOS A LA NATIVIDAD DE NUESTRA
SEÑORA DE ARRATE

AÑO DE 1785

Zelai zabal-zabal ermita edeñ Eibañ'koan
noñk kantatu alegere ezta faltatzen koruban.

Ai mendi alegere
zorionekua,
Jesus'ek Amarekin
beretzat egiña,
zenian jañirikan
añien añtian
ageñtu izan ziran
Eibaf'ko luñian.

Ematen baditugu
neke-izerdiak,
aldapa gogorretan
ondo penatuak,
oregatikan ere
gora eldu ezkerro
konsolatzen gerade
zelai zabalian.

Konfesatuko degu
Señora guria
ezin ukaturikan
guziok egia,
Adan'en pekatuba
mantxatu gabia,
Amaren sabelian
soñtu ziniana.

Jaungoikuaren Ama
zu izatekotzat

eskojitu zinduzan
Aita eternoak;
frutu bedeinkatuba
zure sabelian
Jesus gure maitia
softuba izan zan.

Marinel fraka-luze
Arate-zaliak
emen etofi dira
ontziak zeresat,
itxaso zabalian
balegoz bezela
ermitan paratzeko
beren pozgaritzat.

Obligaturik bada
guztiok batetan
eskatu bira degu
biotz guztitikan,
Amak alde batetik,
Semiak bestetik,
libratu daiezala
tormentu guztitik.

Batek.—Zelai zabal-zabalian, ermita eder Eibar' koan.

Guxiok.—Bai ta bai, bai ta bai, bai baita bai.

Batek.—Nork kantatu alegere ez da faltatzen koruban.

Guxiok.—Norik kantatu alegere, ez da faltatzen koruban.

Batek.—Bai.

Guxiok.—Bai ta bai.

Batek.—Bai.

Guxiok.—Bai ta bai; ez da faltatzen koruban.

Ilunabarrian bukatzen zan jaya, eta geyenak jeisten ziran irintziz eta santzoz beren poza agertuaz. Goyan gelditzen ziran, ordea, apaizak, ziñegotzia, txistu-tanbolin, jende askotxo ta barikerak, egunero eleizkizunak egin, auñeskuak atera, baba jan eta limonada ta «konpuestoak» eranaz.

Urango igandean Anaidea'n jaya izaten zan: ibilkunde, mesa nagusia, bezperak eta dantza.

Urango eguna, barikereren eguna izaten zan. Mirabe, etxekoandré, sukaldari, garbitzale ta gañeratikoak oso bariegañi ibiltzen ziran pozez abestu ta dantzatzen. Eta ilunabarrean guziok etxera, txistu-tanboliñak auñetik zirala...

Idantzezki polit bat

1915'gañen urtean, orduan Orio'n bizi zan

Iriondo apaizak, idantzezki (estampa) txukun eta polit bat ikusi zuan Napaína deritzayon baseían; ártu ta Donosti'ko Erakustokira eramán zuan eta antxen dago.

Azpian, onlaxe dio:

«Verdadero Retrato de la Milagrosa Imagen de Nuestra Señora de Arrate. Como se venera en su ermita en el término de la Villa de Eibar en la M. N. y M. L. provincia de Guipúzcoa. Aparecida en la cima del muy elevado monte de Arrate, que le dió este nombre su lengua primitiva, y se conserva hoy en la Cantabria y después para que sirviese de templo y custodia a esta muy celebrada y milagrosa Imagen aparecida entre las peñas a un pastor, que apacentaba su ganado. Los Eibarrienses son de un aspecto y fisonomía muy alegres, amigos de festines y de bailes, como lo son en general todos los bascongados, devotos y amigos de romerías, como lo demuestra esta devotísima Estampa, por los prodigios é infinitos milagros que obra, particularmente con los navegantes, así de mar como de tierra. Es abogada contra los terremotos, tempestades y truenos y contra todo maleficio, como para conseguir todo aumento temporal y espiritual. La función de esta Santísima Imagen se celebra todos los años el día 8 de Septiembre con innumerable concurso de diferentes personas de ambos sexos.

»El Excmo. y Emmo. Conde de Teba, Cardenal Arzobispo de Toledo y Primado de las Españas, concedió 100 días de indulgencias a las personas que rezaren una Salve ante esta Sagrada Imagen de Nuestra Señora de Arrate ó su estampa».

Tintaz egiña da, ta 1780 baño lenagokua: urte ontan egin zan bide zabala, ta idantzez-kian ez da ikusten. (Argazkian ageitu zuan idantzezki au). Ara or goian liskaña (duelo). XVI, XVII ta XVIII'gañen eunkietan, alkañen arteko auziak liskañian erabakiteko oitura gogoñ eta laña izan zan: orengatik ikusi izan dira, noski, ta gauñ ere ondiñok ikusten dira baseñi batzuetan, zintzilik kexpelajoskiak (espadas de cazoleta). Idantzezki ortan apaiz bat ere ikusten da doibazkatutzen (eskomulgatzen).

Gure gizaldiko jaiak

Eibañ'ko Ama Birjiña lengo gizaldietan eñira jetxi dan beñirik, bat baño ez dakigu: 1753'an jetxi zuten, baño zeñgatik eta nolatan ez dakigu.

1904'gañen urteko peregrinañazioa ikustekua

izan zan. Eibaí'tik 3.000 igo ziran; Elgoibaí'tik 700; Plazentzi'tik 660; Eímua'tik 420; Maíkiña'tik, 430; Deba'tik, 330; Zumaya'tik, 200; Zarauz'tik, 200; Mutríku'tik, 180; Garagaítza'tik, 150; Martires'tik, 140; Elo-su'tik, 130; Ketari'tik, 120; Donosti'tik, 140; beste toki batzuetatik 1.500. Guzira: 8.300.

Ona emen orduko itzneuri batzut:

¡O, zeí jende dijuan
Aíate-mendira!
Ingurutako eíi
danak emen dira.
¡Zein pozik zauden, Ama,
danoi begira,
itz egiñaz gozorik
biyotzen eídira!

¡Ai, zeñ edeíra zauden
mendi gaiñ onetan!
¡Noí legokian beti
egon emen beítan!
Ara, nola kantu ta
soñu edeíetan,
festa egiten zaizun
gauí zeru-lufetan.

Luñean iñun bada
leku bat alaia
da, Maria, Arate'n
daukazun zelaya.
Peregrinazioko
egun au bai jaya;
gauñ dirudi Arate'k
zeruko ataya.

Ondo dakigu gazte
auñ ta gurasuak
asko ta asko dirala
emengo pausuak.
Izan añen bideak
aldatz nekosuak
neke oyek guretzat
dira txit gozuak.

Mesa nagusia esan zuan Donosti'ko Ar-
zipreste Urizañ Jaunak. Txonitza Eleiz ba-
ñuan, orduan Deba'ko Bikario eta gauñ
emengo San Iñazio'ko Uranga jaunak esan
zuan. Eta zelayako mesa esan zuan orduan
Eibañ'ko, eta gauñ emengo Santa Maria'ko
Pañoko Enbil jaunak, eta itzlari Oñkolaga
jauna izan zan.

1913'gañen urtean ere jai aundiak izan

ziran Eibañ'en. ¡Añate'ko Ama jetxi zuten
Eibañ'era Epaila'ren 3'an!

Oña oñduan abestu zan abestia:

¡Aguñ, ene Ama,
Añate'tik zatozena,
gure eñi dana
zuregana biuñtzera!
Zure Semean
eskeñak iritxi gagizuz,
danok zerura
juan gaitezen, Ama egizu.

Beñiz Ama Birjiña gora eramatean, onela
abestu zan:

Guazen Añate'ra
Amari lagundutzera,
guazen, biotz guztiik
aguñ laztan bat ematera.
Zure semeak pozez
gara gauñ danok alkañtzen
gure biotz guztiak
deutzuguz oso eskintzen.

Añate'ko Ama laztana,
etzaitez gurekin aitzu,
Jesus maitia ikusi deigun
zeruan danok egizu.


Egun zoragarriya izan zan ura kristaue-
ntzat eta eibartar jatortentzat.

—

Arate'tzaz beste gauza asko ta asko esan
litezke. Guziak esatekotan, egun asko
bearko genituzke ordea.

Esan detanarekin Arate'ko Ama'rengana-
ko maitetasuna zerbaitean piztu badet zuen
artean, ja zer sari edera nere itzaldiengatik!





JULIA FERNANDEZ

Emakumien etorkizuna

1924'G. URTEKO LOTAZIĀ'REN

14'EAN IRAKURITAKO ITZALDIA




STRENGTH

EXPERIMENTAL

BY

A. W. DUNN





EMAKUMIEN ETORKIZUNA

Andre ta Jaunak:

Asieran *feminismoa*... neskazar itxusi batzuek (maitasun-eztiak ezagutu ez zituzten neskazar itxusi batzuek) jasotako zaramalka besterik ez zala uste izan zan.

Oraztugabeko emakume batzuek, zeruraño eskuak jasoaz, kalez-kale ojuka...: ori da emakume gaixo ayen oroipen bakara; bere iritzi ta asmoak auera eramateagatik guziari (paregarikeriari ere bai) arpegi eman zioten emakume ayekgandik gelditu zaigun guzia orixe da.

Sufragismoa'ren geyegikerien kaltez eta emakumearen lanetako egokitasunez itzegiten, asko jardun dira, eta emakumeak gauza ben eta gai astunetarako gauza ez dirala erabaki dute. Politikarako, gutxigo.

Emakumearen egin-behar bakarra, senarra ta semiak zaindutzia izan behar zan, ta ez besterik.

¿Zeritarako bere etxetik atera nai zuten emakuma, bertan, bere lantxo, otoitz eta ikustaldiekin ain ondo bizi bazan?

¿Zeritarako bere baitaz ibiltzeko ain gogo aundiyak? Eta badakizute feminismoren buruz egiten diren izketa guztiak nola amaitzen diren: «Oso ederki; emakumeak Eriko-etxera eria gobernatzera, ta bitartian senarra etxian, aurari «popak» eman eta galtzerdiak adabatzen».

Feminismoa, orde, ludiko buruauste gogorenetakoa izatera eldu zan. Gizonak aña-ko gauz sakon eta aundiyak ¿egin al ditzazke emakumeak ala ez?

Ora erantzuna nun datorrigun: Pantze ta Alemania'n, gizon geyenak gudara joan ziranean, emakumeak artu zituzten ayen lanak; emakumeak joan ziran lanoletara, emakumeak saltokietara, emakumeak egin ziran lantokietako zuzendari, ta emakumeak lurak landu zituzten. Europa'ko gizonak

eriotzara e'oitu zituzten ar'tean, emakumeak, zalantza gabe, ostetasun gabe, beren soingañean bota zuten bizibideko zama. O'ra ze' egin zuten emakume ayek, bere biziya irabazteko gai ez ziranak, gauza sakon eta astunak egiteko ge'rtuta ez zeudenak.

Ori jakinda ¿no'k zalantzatzen du emakumeak bizi azke bat lo'rtu dezakela?

Geyago oraindik. Gudara gizon asko juan ziran. ¿Zenbat itzuli ziran, o'rdeta, ta nola itzuli ziran? Champion'en *Euskariana*'ko Yan Pierre bezela, ¿zenbat itzuli ziran ondamen ta papu' biu'rtuta, sendirentzat so'rtatuz izatera?

«Emakumeak sena' eta semiei ar'duratzerara, kontu egitera»—esaten dute askok. Oidoztu bezate o'rdeta, gudaren e'uz, sena'rik ar'kituko ez duten emakume asko izango dirala, ta beste askok, sena' eri edo inda'geak dauzkatela: seme bat eukitzeko zorionik ez dutela izango, ba'ña semeri bezela alpe'reko anai ta aita gaxori jaten eman bea'ko dietela.

Eta aitarik gabe gelditu ziran au'ei ¿no'k

jaten emango die? ¡Emakumeak, emakumen lanbide ta gizonen lanbideak betetzen dituzten emakumeak! Ogi samiña, bere gorputzaren izeñdiz ta bere animaren oñazez irabazi zuten ogi ura.... Ogi ura irabazteko bere gogo ta beñe odola ematen zituzten artean, abestu beñ zuten, malkoak txukatuaz, siaska-abesti bat bere ondoan zeuden auri eta aitonarentzat.

«Izan zaite emakumea, ama izan zaite» — esan diote emakumeri. Ondo erakutsi du, bai, bizia irabazi añen, gizonak bezela lan egin añen, emakume-izakera ez duala galdu, ta sutondora eramán ditzazkela, ogiarekin batean, eztitasuna, maitetasuna, ta amaren musu kartsu ta goxoak.

Guda aundiya, Ugoldearen antzera, orokaria izan zala esan liteke. Beste ondameñ batzuen artean, ezkontzaren uritasuna ekañ du. Oñengatik ez da orain, lenago bezela, guraso onaken oñantz bat, beñ bat, alabak ezkontzea, berai bizi-modu bat ematea baik. Au da feminismoak estueraz eskatzen duna; emakumientzat lana, ongi oñdaindu-

dako lana, bere zintasanaren zaitzale izango dan lana.

Baña ¿zeñ lan?

Ezazute esan, gizonak bezela ezin aditaldu edo estudiatu dezakela. Emakume bat jakin-gayetan agertzen baldin bada, gañaldi edo ezepezio bat dala diote. Bañan aditaltzen duten emakumak ain gutxi izan añen Concepción Arenal bat ateratzen baldin bada, ¿zenbat gizon jakintsu atera beañ ote lirake ikastetxe nagusi edo Universidad'ietatik! Eta ez dira ugari ateratzen.

Eta ez belduñik izan. Bere izadia naskatu dezaken ogibiderik ez du emakumeak auke-ratuko. Gañera, ogibide batzuk ez egokiak iduritzen zaizkitzute, baño ez dira. Sendakintza, esate baterako, aintziñan emakumeak egiten zun, min izaten dunari min ori arindutzea berari dagokio-ta. Eta aldezkari edo «abogada defensora» izatea ¿ez litzake ere oso egokia emakumearen izakerarentzat?

Oñengatik emakume ingalandañak gizonei oso edeñki diote: «Lanegin nai dugu, adital-

du nai dugu. Jaunak: dijoala katua uretara; igari egiten baldin badu, ongi; itotzen baldin bada, ongi; baña ez dezayogun lepora lokari bat lotu, gero igari ezin egin dezakela esateko».

Ongi ordaindutako lana eskatzen duala emakumeak esan dugu. Ala da, ta berari lan ori emateko guziok egin dezakegu zer-edo-zer. Lantegietako emakume-langileak, lan-sari edo salario arautu bat lotu du. Gure adipen bearez dagon beste saldo bat bada ordea: etxean lan egiten duten emakumen saldoa. Emakume asko, buñi-aldile edo plantxadora, egalundu edo boñdadora, ta jostun merkiennen bila dabiliz beti. Zuek, gizonak, askotan entzun diezute emakumei, joste zuria dendetan erosita etxean eginda baño merkego irtetzen dala. Eta egia da: saltokietan saneuri edo prezio ziñezkaitzako gauzak aurkitzen dira, eta alaz ere, erosleak irabazten du ta salosketa igotzen da. ¿Noñk ordaintzen du, bada, saltzale ta eroslen irabazi au? Bere osasunaz, eta amaika aldiz bere zintzotasunaz, emakume langileak or-

daintzen du. Saltzaleak asko irabazi dezan, eta asko ordaindu lezaken aberatsak gutxi ordaindu dezan, an egoten da jostun gaxoa sapai-geletan, argirik gabe, izoztua neguan, kiskalduta udan, bere ikusmena galtzen eta beti gaxotzeko zorian.... Langileari bear baño gutxigo ordaindu ta gero ukañ edo limosna bat ematen dion emakumea, berak landeñtutakoentzat landeñ-etxe bat jasotzen duana bezelakoxea da.

Bizia irabazteko eraz eta neskazañ gelditzeko bilduñik izan ez dezan eraz geñtu bear dala emakumearen ezkontza, esan degu. ¿Eta ezkontzen baldin bada? ¿Ama ona ta emazte ona izateko ezeñ jakin bear al du? Amaren belgunde samuñ betetzeko ¿oldea aski al da?

Gizonak nekatu dira esatez semien eskuntza ez dala uskeria, baño uste dute semiak ondo azitzeko ama etxetik ez ateratzea eta ona izatea aski dala.

Eta ez da ala. Iñoñk ez daki amaren ezjakiñagatik semiak osasuna ta bizia zenbat aldiz galdu dituzten; iñoñk ezin esan dezake

zenbat izakera loñindu diren, amak zuzentzen jakin ez ditualako.

Bere semiaren siaska ondoan dagonean, amak zizaldi edo «humanidadiari» gizon bat ematiak dakañen aintzan oldoztia, eta egizko gizon bat ezin eman al izatiak dakañen lepalpen edo eresponsabilidadian oldoztia, ezkuntza oso batek bakañik egin dezake.

Etxean egiteko asko dagoz. Teresa Deuna'k esan zunez: «Jaungoikoa eltze-arñean ere badabil». Emakumeak etxean on asko ta gauza txar asko egin dezazke.

Itzeko edo ondñradua izatea ez da aski. Senar bat bere emazteaz banatu zanean, emaztearen ondotik alde egin zuanean, bere adixkideak galdetu zioten:—«¿Zer dala-ta aldendu zera? ¿Zure emaztea ez al da itzekoa?» Eta erantzun zien:—«Bai, itzekoa da; baña ez da itzeko besterik».

Etxean egiteko asko dauzka emakumeak. Gizonaren alaitasuna bera izan diteke. Gizon esku-garbi, langilea, guziak ezetsi ta zigortzen dutenean, berak onetsi dezake; guziak salatzen dutenean berak zaitu deza-

ke; bestiak ekiten diotenean berak ulertu edo aditu dezake gizonaren biotzean gertatzen dana. Jakintsu ta ertizalientzat, aizematen diona, auferatu-erazten duana izan liteke; bere gogoaren makalaldietan eusten diona; besteak zalantzan daudenean sinisten duna, eta garaipenaren orde z ondamera bada tof, garaztasunak gozaten dituna.

Kalte aundiyak ere egin dezazke, orde, emakumiak etxean. ¡Zer aundia izango dan gizon eskugarbien samintasuna, bere emazteak, senara zapaldu naiaz, beste gizon «azkar», bere asmoak iritxitzeagatik edozein bide oker eta nastutik dabilzan oietako bat gogora dakarkionean! ¡Zenbat aldiz emaztearen ezjakin edo arrotasunak senarari obena aldera bultz egin diyo!

Emakumeari, bere bearak ondo bete ditzan, ezkuntza egokia eman bea diyogu, eta bere izakera bea bezela zaitu bea degu. Ortarako, auferatuen dauden erietan, emakumientzat ikastola berezi asko daude, eta an ezkuntza sendo ta oso jakintsu bat ematen zayete; etxekoandrea on bat iza-

teko jakin beař duten guzia antxen ikasten dute.

Au izan da feminismoaren garaipen aundiena, baño beste batzuek ere lořtu ditu. Eři askotan, emakumeak gizonak ainbat esku-bide ditu; ogibide guziak irikita dauzka, ta gizonarekin batean jauřitzen ditu eřiak.

Emakumeak izan dituzte batzař aundi batzuek, asmakari aundiyak jařdukitzeko: esate baterako, ludiko gentzaren alde La Haya'n bildu zana.

Toki goratuetan dauden emakumeak ere badira. Oraintxe, Rusia sobietikak Noruega'ra bidaldu duan geznaria, emakumea, ta ez gizona, izan da.

Egiz, eunki oni emakumien eunkia deitu dezayokegu.

~~~~~  
Eta emakumien bizieraren aldaketa ikusiaz, ¿zeř egin beař du emakume euskaldunak? ¿Bere aintziñeko oiturakin jařaitu edo auřerapideko bidean sařtu?

Baña lenengo, auřerapide edo prógreso ori zeř ote dan, jaři dezagun ařgi.



Guretzat, edozein berikeri ez da auñera-  
pide. Gure izakera obetu ta aberasten duana  
da auñerapidea.

Oñengatik, berikeri oyek guzietatik, gure  
emakumea euskaldunago egin dezatekenak  
bakañik añtuko ditu; bere izakera añaña  
obetu dezatekenak; Euskaleñiaren itxaropen  
dan ama obetuko dutenak.

Jaunak: Itzal edo eñespetuz betetsi beañ  
dan eñi batean gaude. Euskaleña da eñi ori,  
Auñemendiko malkañetan alatzez iraun duan  
abenda zaña, eguntzitzen ez dan eña, men-  
pekeria zeñ dan ez dakian eña, bere aberas-  
tasun aundiyena bezela askatasuna daukan  
eña.

Eñitañak eta eñbestekoak nabaritu dute  
euskaldunen izakera. Noñbaitek esan du:  
«Eñi onetan, añañiak zugatzetan eta abereak  
landetan zaitzañerik gabe utzi ditezke; Jaun-  
goikoa'ren legeak goñdetzen ditu». Januña,  
zuguña, langile nekaitza, ta uskuñtzalea da  
euskalduna. Bidezko usteai eusteko sutsua;  
maite dituanen itzak entzuteko samuña, baña  
esku latzez iztatzen dutenean año ta eñgai-



za; arkaitza bezela gogoñ, ta galtzairua bezela biurkoñ.

Oleñkari ta ereszale da euskalduna; jayetan, lantegietan, landan, aurtzaroan, gizaroan, beti ta toki guzitan abeslari dabilena.

Euskalduna, oleñkari ta ereszale da. Aste-egunean, jayetan, lantegian, landan, aurtzaroan, gizaroan, beti ta leku guzietan abesten du euskaldunak.

Eta sañi geñtatu oi danez, abendaren izakerako era batzuek, emakumetan gizonetan baño agirigo jañtzen dira. Ez da nere iritzia, baño noñbaitek esan du, euskaldunen artean gizona baño geigo dala emakumea.

Emakume euskaldunak garbi, alai, abetzale, etxe-zaleak dira. Baita uzkuñtzale edo relijiosak ere: guzia maitetasun dan Jaungoikoa'ren izenez gaixotegietako geletan gaxo dagoanari maitetasuna eramaten dieten ainbeste ta ainbeste emakumak ¿ez al dute ala ageñtzen?

Emakume euskalduna langile arastaria da. Lan egiten du etxean eta landan; etxeko emantzak saltzen ditu bakuetan edo periye-



tan; batzuetan araua darabil, ta bestietan artzai da. Eta egun guztiz lanegin ondoren, lanetik datořenean arin dantza egiten du txistua entzuten badu.

Ala ere arigarigoa da oraindik emazte edo ama danean: etxeko eregiņa da, senararen aolkari, semien eslari. Baseřian beřiz, emakumeak erabakitzen ez duan gairik ez da izaten. ĆNoiz joango da gizona bakarrik legegizonaren etxera? Eta an Ćnořk itzegin eta erabakitzen du? Semiak, ezkontzeko, amari eskatu beař dio aolkua, eta etxekoan dre gaztea beřiz, semeari bezin edeř izan beař zayo amari. Napařa'ko bořdako emakumeak, berak nai izaten dute senařa zamari, kontrabandista, izatea. Eta itxas-erietako emakume kementsuak arantzalien izakeran zeř ikusi aundia dutela Ćez al genezake esan? Egunero azken-aguř neketsu ta gařartzak egin beař baldin balitu Ćain ustetsu aterako ote litzake itxasora?

Emakume euskaldunaren zeingia ama ona ta emazte ona izatea da. Baipen onen aunditasuna gauřko egunean zein aundia dan Ćbai



al dakizute? Eriak gaiztotzen baldin badira, sendi-bizitza, pamili-arzteko bizitza egiten ez dalako omen da. Ala diotenak, ¿zeñ esango ote luteke, Euskaleña'n, etxe askotan, suringuruan sendi guzia agurtza deuna otoizten ikustean?

Eta emakume euskalduna berez orelakoa baldin bada, oldoztu dezagun zeñ izango ote litzaken asmo aundi baten aldera, bere eñaren aunditasunaren aldera, ubidetuko bagenu.

Zoritxañ asko igarotzen ari da gure abenda, ta bere itxukerian, gaitza norañokoa dan ez du ikusten. Euskera ta oiturak galtzen dijoaz, eña gaizurñe dago, ta gaitz oien zuztañak gure biguinkeri ta ajolagabetasunean daude.

Gure eñiak agitz gaiztotzen ari dira. Bidegiteko dagon eñaztasunaz, baseñitañak maiz urira joaten dira, ta eñbestetañak beñiz azkeneko baztañetarañño sañtzen zaizkigu. Adiskide-antzean datoz, ez etsai bezela, baña *fo.r* eta *kuple* beñiak ekañtzen dizkigute, ta gure oitura ta gure izkuntza utziaz



bestien oiturak ta izkuntza aítzen ditugu. Eta ala, gau' e'ri batek eta bia' beste batek, euskaldunen izakera galtzen dute, izkuntza aldatzen duan e'riak gogoa ere aldaltzen du-ta.

Gañera, lenago a'raunaz eramaten ziran itsasontziak lu'funez eramaten diran ezkeroz, a'rantzale sendo, e'ro zoli eta oitura ga'rbiduna galduaz dijoa. A'rantzalea ez da orain a'raunketan nekatzen, ez ditu e'roak aundi-tzen, ta kaira dato'renean ez dato' nekatuta, ta «kopletista» ikustera dijoa.

Irakasleak ala dio bere idazti *El Genio de Navarra*'n: «Gauzak orain a'рте bezela ja'raitzen baldin badira, eun u'рте ba'ru napa'ta'ak (eta beste euskaldunagatik ori bera esan liteke) so'rtzezko izkuntza galdua izango dute, bere oiturak aldatuak, bere euskaldun-izakera izkutatua; ala guziz ere a'figa'ri izaten baldin badira, a'rdo opayako onda'ak bestelako onda'ak bezelakoak ez diralako izango da».

Iraga'ki ikaraga'ri au ge'rtatu ez dedin, Jaungoikoari eskatu dezayogun, ba'ña gure



aldetik ere egin dezagun al dezakegun guzia. Oretarako, ele egokiaz azi zagun euskalduna, ta batez ere, emakume euskalduna azi zagun bea' dan bezela.

Belgika'ko notin nabari batek esan du: «Uste dugu giza'zteko asmakariak, emakumea sendiko ama on bat egiñaz baka'rik erabaki ditezkeela». Eta guk esan dezakegu, emakume euskaldunak Euskale'ria gaizkatuko duala uste degula; abendaren gaizkatzea emakume euskaldunen eskuetan dagola uste degula. Azi zagun egoki bira'ko ama, ta Euskale'ria, e'ri za'ra izan a'ren gazte irauten duana izango da, ta bere aunditasunaren kaltez age'rtzen dan guziari gogor' ekingo diona.

Ba'nan ¿orain dauzkagun ikastetxeak al dira e'riak bea' dituanak? Ikastetxe oyetan ¿eraldu al liteke bea' dugun emakumea? ¡Nola egin dezateke au oraingo ikastola edo ikastetxeak, irakasle ta ikasleak elka' ezagutzen ez badute! ¡Ze' egingo du bere ikasleak ule'rtzen ez dioten irakasleak!

Euskale'riko ikastoletan, au' euskalduna



arği gabe, aize gabe, toki txarretan dago, eta gañera beñiz zeñ esaten dion ulertzen ez dion irakasle baten menpean; onek, bere mintzokiaz, ez dio ez biotz-ikara pixka bat ez biziko gogozko ele bat eramaten.

¡Bizkai'ko aipidea zabalduko al da! Ala, eñi guzietan izango genduke Bizkai'k dauzkan auzo-ikastetxeak bezelako ikastola bat, ta auñ euskaldunak berai dagozkien bezelako aziera ta ikaskizunak izango lituzteke; irakasle euskaldun bat, bere gogora, bere adimenera, bere naimenera, ta batez ere bere biotzeraño sañtuko litzaken irakasle bat.

Ibañ atsegintsuen edertasuna, inguruko mendien antustea, negu itunen uskuñtasuna, itxaso kiskuñaren neñigabetasuna, baseñi lengungen siñeskaya, ama lantzalen maite-tasuna, gure abesti bat entzutean esnatzen zaigun biotz-ikara... ori guzia gañbaitu edo sentitzen erakutsi beañ dio irakasleak ikasleari, baña ortarako, irakasleak berak gañbaitu beañ du lendabizi. Ikastetxean, ikaslearen gogoak izan beañ du nagusi, ta



ikastetxe beñiak izan añen, ezeñ gutxi egingo dugu irakasleak bere belgunde-aunditasun a oldozten ez badu.

Gure ikastoletan asko ta edeñki abestu beañ da; abestia oso bañnetik atera dedila. Baita ere dantzatu beañ da, ta gure dantzak erakutsi. Asele euskaldunak ere ez dira aztu beañ. Ikusi zagun Villoslada'k irakasten diguna: «Amaya, aita godo ta ama euskaldunaren alaba da; bere ama etzun ezagutu, ordea, ta euskaldun zanik ere etzekian; biotz-biotzez goda izan beañ zan bada. Alaz ere, Ramiro'k, maite zuan emakumearen oroipenean, bere alabak eñi euskaldunari goñotorik izaterik ez du nai, ta bere izkuntza ta oiturak ezagutu ditzan, asele, ipui, kondaira ta abestiak esaten dizkio. Ala, Amaya'k, euskaldunak bere aitaren etsayak izan añen, maite izan zituan, eta egun batean Amagoya'k, abesti euskaldun edeñ bat amaitzean, esan zion: «Zu euskaldun zintzo bat zera, Aitoñ'en alaba zera: Aitoñmendi zurea izango da.»

Abestiak, dantzak, asele ta ipui euskal-



dunak, eriko lutelestia, euskaldun ospetsuen bizitzen beñi, Euskaleriko edestiya... origuzia ikastetxean erakutsi beañ litzake.

Goñputzez obetzen ere lagundu beañ dio-  
gu emakume euskaldunari, ori ere abenda-  
ren alde da-ta. Ta auñari ere bai. Egun  
guzia euri ta eluñez bustirik ikastola-bidean  
eta ikastolan beñtan igarotzen duan umeak  
beañ aña ta beañ bezela ez du jaten askotan.  
Ume oek ikastetxean beñtan bazkaldu beañ  
luteke. Baseñitañak berak añautzak eta esnia  
ekañiko lituzteke, ta gañerakoa eñez egingo  
luke irakasleak.

Emakume euskaldunak beteko du bere  
ezikuntza etxe-ikastetxe edo «Escuela del  
Hogar» deritzaienetan. Emakumeak gauza  
asko jakin beañ ditu etxerako, ta askotan,  
irabazteagatik baño geigo, oiek ikasteagatik  
irtetzen da etxetik urietara joateko. Baña  
badakigu zeñ geñtutzen dan: ez da itzultzen,  
eta itzultzen bada ere, gero, lendabiziko  
semea izaten duanean, urizaletasunak era-  
manda, iñude joaten da. Eta joate oñek  
kalte asko egiten ditu. Baseñian amarik gabe



utzitako aur asko galtzen dira, eta ala abenda arगतzen da.

Neskame joanaz ikasi dezateken guzia ta geyago, Etxe-ikastola oyetan ikasi dezateke. Oritarako, orde, aldia ta dirua bea dira; oregatik, emakume abertzaliei eskatu bea diegu, igande-aratsalde luze ta aspergarrietan, bezpera-ondoren, baseita edo erita saldo bat bildu dezatela, eta abesti ta ipuiatz batera, sukalde-gauzak, eropak adabatzen, gaxoak zaitzen, aurai kontu egiten, eta orelako beste lanak ere erakutsi dezaizkietela.

Onela asi liteke, gauza aundirik gabe, ta gero, Diputazio, Uri-batza eta beste batzuen laguntza etoriko litzake. Ala ipiñi da Donostia'n ikastetxe bat, eta ala ipiñi dira iru Iruña'n.

*Eusko-Ikaskuntza*'k egin zuan lenengo Batzaeran artu ziran asmoetako batek eskatzen zuan Etxe-ikastola euskalduna, eta uste dut asko berandutu gabe gai ain aundia egiñik ikusiko dugula.

Ikastola oyek, ola ugarizko urietan bea-



beańezkoak dira. Emakumaz, gizon langileaz geńtatu dana geńtatuko da; bere bila lenbiziko dijoazenarenak izango dira, ta guk joan beań dugu. Emakume euskaldun oyek bere izadi euskalduna ez galtzea nai badezute, ezazute utzi begipe gabe, bulduńkatzeko geńtu ezazute. Ońtarako, Etxe-ikaste-txeak ipintzea da onena.

Eta zuek, emakume aberatsak, ĩbadakizute zeńgatik aberatsai deitzen zayeten «clase directora», mota zuzendaria? Oso lanpetuak bizi diralako bide zuzenenak ezin ikasi dituztenai bide oyek erakustea beańtuak daudelako. Zuek astia ugari dezute, ta beań bezela igarotzea beańtuak zaudete. Emakume langileak, eńiko emakumeak, zuen zuzenbide zai daude; beren beańak betetzeko, zuen erakuspenaren zai dauzkatzute.

Bańa ońtarako, zeok osotu ta ondu ta auńeratu beań dezute auńenengo. Emakume beńizaleak izan beań zerate; zuen adimenak gizonenak bezela piztu-erazi beań dituzute; gizańteko asmo ta egikizunetan ere zeńbait



saftu. Gizonak alde batetik eta emakumeak bestetik, guziok ondu ta auferatu beař dugu, Euskalería guzion beař da-ta.

Eřiko emakumen uts askoren eřua, aberatsak dute, oek erakusten dutena egiten dute ayek-eta. Euskera uzten badute, gure dantzak azten badituzte, apaiñegi jantziak badabiltz, zuek orixe bera egiten dezutelako da. Etxeko gauzak utzita, uřutikoak ařtze-ra zoazte, ta zuen bidetik dijoaz gero besteak ere.

Ta ona Benavente'k zeř dion: «Belduř izan zaitezte beti, geřtu daukatena utzi ta uřun dagona maitetzera dijoazenaz, goialdera egaka joateagatik, beren kabia otz uzten dutenaz. Ařigařiak dira egoak, aize zabalean odei gañetik dijoazenean, baña ařigaři ta goxoak, kabi-gañean bilduta epeltzen dutenean».

Emakumeak: Euskaleriaren etořkizuna azteřtu beař duten gizonen amak zuek zerate. Onak, zindoak, eta benetan euskaldunak egiten alegindu zaitezte bada. Ořtarako, gazte - gatzetandik asi zazute zuen lana,



seaskatik, gure abesti xamufak, au bezela-  
koak, abestuaz:

Gotzontxu eder zoragafiak  
egan dabilta gañean  
iri bareka, laztan ta agufka,  
laguntza egin naiean.  
Zakuf aundia etofiko da  
zuk ez badezu eiten lo.  
Ofengatik ba,  
ene potxolo, egin aguro,  
lo, lo, lo....









# ITZALDI AK

3'g. saia

- 1: Leizaola'tar J.: *Jakintxarako gaitasuna.*
- 2: J. M. Barandiarán: *Eusko-mitolojia.*
- 3: J. M. Olaizola: *Bixente Goikoetxea.*
- 4: J. M. Olaizola: *Bixente Goikoetxea.*
- 5: J. K. Geña: *Gure oleiki xar-xarak.*

4'g. saia

- 1: Anabitarte'tar A.: *Antxiñako olinpiar jolasak.*
- 2: Lañaga'tar P.: *Añate.*
- 3: Lañaga'tar P.: *Añate.*
- 4: Julia F. Zabaleta: *Emakumien etorkizuna.*

Argiak, ezezak eta nofnaik irakurtzeko aukerazkoak dira itzaldi oek. Gañera beñiz, txukun, apain eta arduraz argitaratuak daude.

**Sail bakoitza: 2 P E S E T A**

Itzaldi oek salgai dauzkaten etxeak: Imprenta de Martin y Mena (San Marcial, 23).  
—Librería de Leizaola (Garibai, 28), biak Donostia'n. Eta Bilbo'n beñiz: Emeterio Verdes (Correo, 9).



# EUSKALERRIAREN ALDE

Revista de cultura vasca

---

Historia—Bibliografía—Arte—Literatura — Idioma vasco — Grabados — Números especiales—Obras encuadernables — Certámenes histórico-literarios en castellano y euskera, con más de tres mil pesetas anuales de premios.

Pedid referencias y números de muestra á la Administración: Imprenta de Martín y Mena, (San Marcial, 23) San Sebastián.